Euskal idazlea langile artean langile duzu. Pentsamendua produzitzen dizu. Errealitateak, ametsak, espresioak. Argiak eta koloreak. Protestak. Penak eta itxaropenak. Gezurrak, noizean behin egiantz batzu. Denbora pasa-kizunak eta estudioak. Irudi eta irudipen. Hitzak produzitzen dizkizu. Baina euskaraz, Euskal Herriaren hitzak. Eta ongi dakizu, euskal herriaren lanak zailak, eta gogorrak, dira. Ez errazena, euskal herri mutuaren hitzak produzitzea.

Herri mutu

Herri mutua da euskal herria. Azken urteotan, batez ere, gerraz gerozkoan, zauriz eta odol jarioz gehiago hitz egin behar izan dizu, ahoz baino. Hori izan da urteotako euskara garbia. Isil-isilik mintzo da, Basaurin, Segovian, Euskal Herria. Burgosen. Erori zaizkigunen hilobietan. Intxortan, Bizkargin, Lemoan, Durangon, Gernikan, Santoinan.

Baina lehenago ere. Euskaldunak etxean bakarrik izan dizu libre hitz egitea. Euskaraz. Agirian, jendaurrean, hiru ximinoak bezala ibili behar zuen: ez ikusi, ez entzun, ez mintzo. Erdaraz bakarrik zuen libre, ezer esatea, edozer gauza entzutea, nahi zuena ikustea. Hau da, hori dena jauntxoek eta nagusiek zuten libre eta beste inork ez.

Euskara ez da inoiz iritsi euskaldunaren mintzabide oso izatera, ez delako inoiz mintzaira ofizial izatera heldu. Eta horregatixe, halaber, euskara ez da herri osoaren hizkuntza bakarra sekula bihurtu. Euskalkitan hautsita ibili zaigu beti. Eta, horregatixe, baserritarren eta arrantzaleen eta olagizonen hizkuntza izan da euskara. Laneko eta sutondoko hizkuntza. Gehienez ere feriaraino eta elizaraino balio zuen, etxetik kanpora. Baina ez Donostiaraino edo Bilboraino. Han euskaldunak seko mututu behar zuen eta erdaldunari lekua utzi: hauzitegian, administrazgoan, merkatalgoan; seminarioan, koartelean, moja eta fraide komentutan; trenetan. Kalean ezkutatu egin behar zuen euskaldunak. Eskoletan, satorrak baino lurperago ezkutatu behar zuen, kristorenak eramango ez bazituen ume gaixoak. Hizkuntza barbaro eta lotsagarritzat jota zegoen

euskara. Jauntxoen eta seinoritoen burla-terrorismoaren ihesi ibili behar izan du beti. Hizkuntza klandestino bat da. Persegizioagatik behin eta lotsagatik hurrengo.

Mendi herri mutua, euskalduna. Herri atzerantz doana, alde guztietatik hauzoek herstuturik, lurra galduaz inguru guztian eta bizia galduaz bizi guztian. Euskal literatura ere, errezo eta negar literatura da, hortakoz: erlijiozko liburuak eta bihotzaldi poesiak. Etxe barreneko literatura lotsatua, beldurtua.

Arana Goiriren garraisia

Aurretik ere izan dira, saiatu direnak, euskarari *behar duyen thornuya* ematearren: nafar idazle haundiak, batez ere; lapurtarrak, gero; Aita Larramendi, XVIII. mendean. Baina Foru Batzarretara deitu ohi zuten suak eta adarrak mendietan itzali zirenean, Sabin Arana Goirik bota duen garraisi desesperatua, hura izan da, herri mutua garraisika jarriko duena gizamendearen haseran.

Gerra aurrean lan asko egin da euskara Euskal Herriko hizkuntza nazional bihurtzearren.

Altxamendu faxistak, ordea, egundoko mututasunik eta itsualdirik beltzenean lurpera zuen berriro Euskal Herria. «Bethiko gaua, gau lazgarria, begietara zait jausi», errepikatzen zuen Salbatore Mitxelenak, gerra ondoko ilunaldiaren esponente bikainena bera:

Zoritxarreko gerratea, bai,
gaitz denen iturburua.

Eta, etsi ezinda, ia etsita:

Adio,
Euskal Herriak dario.

Elkar lan

Gerra osteko literatura ez da literatura egitea xede duena: herriari mintzabide emateko sortu dena baino.

Aldez aurretik argi eta garbi utz dezagun, zein sentidutan mintzo ohi garen egungo euskal *literaturaz*. Hitz honek bere esanahi propioa bait du egungo Euskal Herrian.

Beharbada lehenago uste zen, «literatura onik» sortuaz gero, euskaldunek ikusiko zutela eta herria mintzatuko zela, lotsa eta konplejo gabe, eta euskara ere onik zela. Gaur alderantziz uste dugu: Euskal Herria euskaraz mintzo bada, eta bizi bada, sortuko da literatura, eguna datorrenean.

Beraz, gure eritzian, inportantea ez da literaturarik izatea. Autore inportanteak izatea, adibidez. Egon ere ez dago, beharbada, gerra aurrean bezalakorik. Baina, egonda ere, ez luteke halako inportantziarik izango. Behin-behinezkoa eta beharrezkoa elkar lana da orain. Eta idazleak

«literaturarik» ez, baino herriaren hizketa produzitzen dizu. Isiltasuna transkribatzen dizu.

Euskal Herriaren epopeia ez bait dute egiten heroi bakan batzuek. Eta ez kantatzen Autore haundi bakarrek. Herriaren lanak egiten du historiako epopeia. Guztion artean, harriz harri, puntuz puntu, egingo dugu euskal poema haundia ere. Mintza bedi herria bere ahoz, ez besteren ahoz. Hori da gure poema nazionala. Euskal Herri euskalduna.

Egungo euskal literaturan ez dago —nire ustez— buruzagi eta gidari eta profeta distirante haundirik, argi eta izar; nahiz eta idolozaleak, hemen ere, behin eta berriro ikus daitezkeen kapera zokoetan, aldareak eraiki nahita sainduren bati. Elkar lanaren garaietan gabiltza. Literaturatik landa hola da. Literaturan halaxe dela, ohartu ez duena, despistaturik dabil. Inoren hagiografiarik ez, baino soziologia, dagokio gure denborari.

Euskal idazleak, indibidualitate bitxirik edo ez, baino ekipo bait dira. Lankide. Elkarren maisu eta ikasle. Indibidualitate apartik ere badugu, noski. Baina interesatzen duena ez da hori. Idazleak ekipoan ari duena, interesatzen zaigu ateka honetan, bizi garen bezala. Guztiz sozialdu da idazlegoa. Literatur euskara batua sortzeko ahaleginak horren seinale dira, seinale bat. Inportantea ez da, bat edo beste zer dabilen bere ganberan. Bai, herria kalean dabilen.

Beraz, historia aldetik begiratu beharra dagoena aparte, azterketa soziologikoa dugu bide aproposena, egungo euskal literaturgintza ulertzeko: lana delako eta elkar lana delako.

Ohituta gaude, izan ere, gaizki ohituta, «literatur historiarik» eskaintzen zaigunean —errusiar literaturaren historia, literatura ingelesaren historia— autore mordoska baten eta obraren batzuen berri aurkitzera, ez justu historiarik eta ez literaturarena justu, puska literario batzuena baizik. Literatoen historiak. Literatur obren historiak.

Euskal literaturgintza bera ezagutzera ematekotan, askoz hobeto ematen dizu azterketa soziologikoak. Torrealdayk ez bait dizu minuta bakarrik erakusten: sukaldea bera erakusten dizu. Eskaratza.

Mundu zahar

Sukalde txino bat ikusten duenak lehenengo aldiz, ezin antzeman dio hango pote, lapiko, belar, zuztar, haragi, arrain eta olio iskisalda lardaskari. Halako zerbait iruditu behar zaio, gure triki-trakuak ezagutzen ez dituenari, euskal literatura gaur.

Buruhauste xelebreak dauzka euskal literaturak: batek halako euskalkitan idazten duela, euskara batuan besteak, eta abar. Gaztelaniazko edo frantsesezko literaturetara ohiturik dagoenak, ez du gutiago sentituko, gauzaren batzuk falta direla, literatura horietan ohizkoak: egiazko «eskola» literario diferenterik ez dago, esate baterako. Ez dute, behintzat, beste literaturetako inportantziarik.

Egia da: gure literatura ez da normala, normala ohizkoa bada. Gure literatura ez dago gaztelaniazkoaz edo frantsesaz alderatzerik. Azterketari falta zaizkiola, irakurleak usteko duen alderdi batzuk, hortakoz, azterketak ez, baino euskal literaturak berak falta ditu. Beharbada begira zitezkeen alderdi horiek ere apurtxo bat gehiago. Baina, bene-benetan, egungo literaturgintzan arazo sekundarioak ditugu. Biharkoan inportantzia gehiago izanen dutela, denok espero dugu.

Historiak esplikatzen du, zergatik dabilen, dabilen eran, egungo gure literatura. Historiaren erdian, historiak ukitu gabe ibili bait da euskal idazlea: mundu guztian dilubioa ari zuen, baina hura Noeren Arkan. Patxada-patxadan eta seguritatean. Harrapatu du dilubioak hura ere, horratio! Eta horixe da egungo literaturgintza.

Euskal literatura zahar gehiena, kasik dena, baserriari itsatsi zaio XX. mendera arte. Baserri maitaleak ziren literatura hori egin digutenak: agian jatorriz baserrikoak ere bai; baina ez baserritarrak, bizibidez eta lanbidez. Horrek bere tankera eman dio. Han daukagun baserriak, baserri munduak, baserriko errealitatea oso goi-goitik tranzenditzen bait du. Baserri metafisikoa da. Tradizio sanoen etxea; bakearen kutxa; harmonia prestabilitu guztizko gizarte patriarkala; sendi harremanetako gizarte gozo eta ederra; ordenu perfektoaren mikrokosmoa. Arkadiarik ez da. Baina bakarrik, euskal irudipen puritanoek esijitzen zuten Arkadiak, rigoroski moral eta xuxen-xuxen izan behar zuelako. Arau eta ordenu beti seguruen erreinu konplitu. Monastegi sekular: *ora et labora*.

Euskal literatura sinesmen katolikoaren mundu seguruan ibili da orobat: dotrinek, dogmek, sermoiek, festa egunek eta ohitura garbiek, irmoki aseguratutako gazteluan. Inoiz handik kanpora ausartu bada, gaztelu herstuagoan eta garbiagoan sartzeko izan da: badugu literatura kalbinista honddar bat.

Biderik zapalduenetatik eta ohituenetatik ez da irten. Formari bagagozkio, beraz, gehiena trataduak egin dira, dotrinak nahiz sermoi eta irakas liburuak. Eta hori ere arimari begira ia dena. Haragiarekin ez da arriskatu euskal literatura. Ezta forma literario egiazki libreekin ere. Kreazioaren beldur izan da.

Ia beti, eta geroz gehiago, etxe inguruko euskalki ezagunean ibili zaigu. Etxeko eta hauzoko euskaran. Gurasoei ikasitako euskara goxo-goxoan, seguruan. Alegia, hori egitea ez da lortu. Lortu dena, izan da, sutondotik aldentzeko ikara izatea. Idazlea, bere euskararekin, beti amaren gonapean bezala ibiltzea. Ez da bide berritatik menturatu. Beti etxeko seguritatean, hizkuntza aldetik ere.

Gerra aurreko belaunaldiak ezin irauli izan zuen mundu hori, aski menturatu arren. Hein haundi batetan, mundu horrexen menpean zegoelako bera ere. Gainera, bidea moztu ziotelako. Faxistek Lauaxeta poeta Gasteizko presondegian garbitu zuten. Granadan bakarrik ez dira afusilatzen poetak.

Beraz, irakurleak ez du harritu behar, orain etxea hankaz gora ikusten badu, eta literaturgintza nahasi honek, haren ustez, eginkizun zinez harrigarriak eta oso guti literarioak ere badarabilzki. Historiak hortara

gaitu. Gure hazaldiari tokatu zaio hasi eta moztutakoa jarraitzea, eta lanari barnagotik lotzea. Nola ari den, Torrealdayren azterketak erakusten dizu. Ari da nolabait. Zuzen ala oker, orduak jotzen zuen eginkizuna, horixe zen: industri gizartera jaitsi baserrietatik, euskara kaletartu, euskara batu, pentsabide modernuetan murgildu, forma literario berriak urratu, produzio literario normal batetarako azpiegitura ezarri eta sendotu, obra esporadikoen literaturarik izaten ez jarraitzeko. Torrealdayren eskutik hori dena ikusten duzu xehe-xehe.

Nire ustez, Torrealdayk mundu zahar bat agertzen digu gehienik: hau da, oraintxe artekoa. Mundu zaharretik berria nola hasi den. Nola oinarriak bota diren. Literatura berriak hasera nola hartu duen. Azterketa honek ederki erakusten duenarekintxe, hersten den orain arteko mundua.

Mundu berri

Baina orain, egun hau, bihar eta etzi ere bada. Orain mundu berria dator: azterketa honek erakusten digunarekin hasita dagoena.

Hortan ari da eta hori du euskal literaturak betekizun larriena: mundu berri bat ireki. Egungo mundua bere gain hartu eta biharkoan zulatu, bidea hersten duen hormatzarrean ateak zabaltzeko.

Torrealdayren merezimendu bat, hain zuzen, azterketa soziologiko zehatza egin digunez gero, euskal literatura batez ere eginkizun dugula, erakustea da. Azterketa honek piska bat larru gorrian uzten gaitu.

Gauzak diren bezala dira, gustatzen ez bazaizkigu ere. Orain arte katetan egon gara. Katetik eraman gaituztelako, batik-bat. Baina geu kate artean genbiltzalako ere bai. Gainean generamazkien mila eratako zentsurak, urteen eta pisuaren poderioan, barrura sartu zaizkigu. Abandonoz beteta dago gure iraganaldia. Gure historia, gure histori falta da. Euskal idazleak ez du bere buruan konfiantzarik, — izenordekoz josita dago literatura; aurpegia mozorroz estaltzen dizuten idazlez. Barruko kateak hautsi behar dira orain, mundu berrirantz abiatzeko. Lotsak, beldurrak. Tabu eta konplejoak. Autozentsurak. Nagikeriak eta zabarkeriak.

Herri berri

Helburua honela bada: «maila guzietan, euskal nazio eta herri kultura berregin eta aitzinaraztea, eta Euskadiko gizarte osoa euskalduntzea eta euskara erabiltzearen normalitatea, egungo egoera trilinguetik hasiaz», helburu horri begira ibili beharko du literaturgintzak.

Helburua euskal nazioa da.

Helpideak, ordea, literatura baino gehiago izan beharko dute. Literaturak bere partetxoa egingo du. Baina edozeinek ikusten du: hori ez da letra bidez lortuko. Eta hori horrela, kondizionamendu horiek onartu beharko ditu literaturak.

Sarri esan zaigu: euskalduna entzuleago dela, irakurle baino. Bidezko da. Mendez-mende eskolarik izan ez duen herriak, nahitaez entzuleago izan behar. Azkeneko bazter zokoraino heldu behar du euskarak. Ez du egingo liburu eta aldizkari bidez. Euskal literaturak gehiago aritu beharko du irratiz, telebistaz, kantaz, zinemaz: irrati teatroz, eta abar. McLuhanek, beste era batetan, arrazoi du guretzat: oraindik ez garelakoxe Liburu Arora heldu. Hainbat gutiago Literatur Arora.

Hobeki esan, euskal literatura bere Aroan dabil. Ez, gaztelauaren edo frantsesarenetan. Euskal literatura bere historiatik esplikatzen da; ez, besteren batzuekin alderatuaz. Euskal literaturgintza gure errealitate tristeen esklabo bait da. Eta, bere borondatez ere, gure errealitatearen zerbitzari da: nazio deseginaren berregile. Idazlea ez dabil bakarrik: artistekin dago, Oteitzarekin eta Ibarrolarekin; politikoarekin, alfabetatzailearekin, periodistarekin, ikastolekin. Herriarekin, herrigintzan ari da eta.

Azpiegitura

Gogoa ez da aski. Asmoak, ideiak, planak ez dira aski. Literatura nahi badugu, literaturgintzarako baldintzak behar ditugu.

Askatasuna behar dugu, batik-bat.

Azpiegitura sendo bat lehenbailehen behar dugu, bihar baino hobe gaur, ahal bada atzo bertan, etorkizuna irabaztekotan. Orain arte daukaguna guti da: nekez bizi diren argitaletxeak; zabalkunde gutiko agerkariak; ikastola guti batzu (Unibertsitaterik ez, ordea); irrati programa labur batzu (telebistarik ez, ordea); liburu guti; literatura pobrea. Laguntza ekonomikorik ez.

Liburu produzioa gora eta gora joan dela urteotan, esango didazu. Egia da. Bultzada galanta eman diogu. Baina tope batzu jo ditugula, ematen du, hortan ere. Salmenta ez da ugaritu. Goena jo dugu, apika. Idazleari gehiegi eskatu ez ote diogun, nago. Liburu eroslea ez ote dugun aski kargatu.

Bidean planto ez egiteko, egiturapen berriak sortu beharrean gaude lan guztiari. Azpiegitura zabaldu, irmotu. Irakurleak ugaritu: irakurleria diferentziatu ahal dadin ere; liburu gehiago sal dadin; eta produzioa ugari eta diferentzia dadin, ondorioz.

Alfabetatzeko kanpainak arras beste oinarri batzuen gainean eratu beharra dago. Adibidez, soldaduska garaia aprobetxatu ahal izango da, beharbada, mutilei masan euskara irakasteko eta alfabetatzeko.

Idazleak profesionaldu beharra dago. Beti esaten da. Baina, idazlerik profesionaltzeko, idazleak ugaritu beharra dago lehenengo. Bestela, daudentxoek mila gauzatan aritu beharko dute beti ere, *tutti-frutti-idazle*, berak besterik ez dago eta dena egiteko. Idazle kursoak antolatu beharra dago: Alderdietako, Sindikatoetako funtzionariek euskaraz idazten ikas dezaten; beren idazleak eta itzultzaileak izan ditzaten; agerkariek beren

albistariak eta berri emaileak, eta abar. Orduan bakarrik izango du mugonik benetan literatoak, bere-bere lanetan libertatez murgiltzeko.

Literatura herrigilea

Idazle eta literato ez da berdin. Berdintsu bai, gure artean. Biharko Estaduak, sozialista ez balitz ere, pittin-pittin bat sozial izango balitz behintzat, berak hartu beharko luke zientzia eta teknikazko liburu produzioaren kargu. Berdin ikastoletako, Unibertsitateko, Alfabetatze Kanpainetarako eta, arrunt, Herri Hezkuntzarako izango den testu produzio guztiarena. Horrek ez dauka esku pribatuan jarraitzerik, kasualitateari abandonatuta.

Literaturak, ordea, Estaduaren laguntza baino gehiago eskatzen du. Eta ez ditut idazlearen talentua, etorria eta zazpi musak adierazi nahi; organizaio legez eskatzen duena baizik. Ez dago orain arte bezala jarraitzerik, ordu libreetan produzitzen, tantaka-tantaka literatura sortzen. Literaturak benetako produzio sozial behar du bilakatu.

Baina literaturgintza normal baten lehenengo eragozpena, hemen, daukagun literatur konzeptua bera da. Errealitateari ez dagokion ilusioa bait da. Joandako urteotan idolo hanitz puskatu dugu; ukitu ezinezko guztia ukitu dugu eta eskukatu; aldare eta saindurik ez dugu zutik utzi; errespeto guztiak galdu ditugu... bat ez beste. Guztiz kuriosoa bait da hori. Mito denak —eta ez zirenak— literarioki denuntziatu ditugu; hau da, denuntziatzen genituen ilusioan anparatu gara, ausart eta bitore. Konplejorik ez dago hemen, edonor politiko izateko, filosofo izateko, eta Toledoko Artzapezpiku ere izateko, gogoak ematen badio. Ausardiarik ez da falta. Gehiegi. Baina literatura? Ikaragarrizko errespetoa sartzen du horrek... Idazle izatea gauza bat da: lana bait da. Baina literato? Hor hasten dira lotsak eta konplejoak eta ikarak. Zein ausartu nobelarik publikatzen, Hego Ameriketako nobelarien teknikak ondo-ondo menderatu arte? Poesia formalki perfektoak egin arte? Eta nola publikatu ipuinik, Islandiatik Kabo Hirirainoko narratiba estilo den-denak ondo-ondo aztertu eta ikasi arte? Eta nola publikatu antzerkirik, Brecht bera baino hobea zarela, seguru egon gabe? Hoberenik ez dena, ez da ona. Nola eman ezer argitara, sekulako esperimentu formalen bat asmatu ez baduzu? Beste dena desakralizatuz zihoan artean, literatura geroz eta sakrasantuago bihurtuz joan da. Literaturan obra perfektoak eta akabatuak bakarrik dira zerbait. Idolo zaharrak bota, idolo berriak altxa.

Puntu honetan, kritikatu ohi ditugun gerra aurrekoak bezalaxe eta okerrago, gabiltza; eta haien konplejo berberez. Euskal literatura mediokre guztiaren kontra, kalitate bila jo zuten haiek. Modernotasun bila. Forma eder eta berri bila. Eta fede haundia zuten, obra haundi batzu idazten bazituzten —poema haundi bat, adibidez— salbu zela euskal ohorea eta salbu euskal literatura. Dudarik ez da, euskal literatura pobre dela eta eskas dela, eta denok horren konplejoz gabiltza, hilargia bera harrapatu nahita salto batekin. Prestijio bila. Akonplejaturik. Ez duguha intzat hartzen urrea besterik. Literatura monumentala. Nahiko sofritu dugu lehen ere literatura pobrez.

Zer da, gero, guk nahi duguna: literatura eder, aberats, haundiren bat? Harrotzea al da, guk nahi duguna? Ala askatasuna, eta askatasuna besterik ez? Gure herria ttipi eta pobre da; ongi da, halaxe dela. Guk ez daukagu zergatik haundien haundikeria bila joan. Zer inporta digu, besteak aina garen ala ez garen, geu aina baldin bagara. Gure literaturak ez dauka zergatik besteena bezalakoa izan. Guk behar duguna da, bizi eta libre bizi. Libertatearen osagarri bat, hain zuzen, nork bere kultura eta literatura izatea da, nork bere neurrikoak eta bakoitzak behar bezalakoak; baina ez haundi izatea, hori ez da askatasun osagarririk. Haundik eta librek ez dute zer ikusirik.

Beraz, libertate literatura behar dugu. Herrigilea. Haurrek eskoletan ikasiko dituzten poesiak. Kopiatu eta kuttunari maiteminduak bidal diezaizkiokeen kantak. Norbait hiltzen zaigunean irakur dezagun saio bat. Barkazioetara eramago dugun nobela. Gure situazioa familian aklaratzen digun antzerkia. Erabiltzeko eta aprobetxatzeko gauzak.

Eta guk behar dugun literatura, da, herriak herriarekin duen komunikazioarena. Langileak langilearentzat egiten duen kontakizuna; amak haurrarentzat egiten duen antzerki antza; presoaren rapporta, denok ikas ditzagun gartzelako esperentziak; estudiantearen tunantekeriak, gurasoek jakin dezaten, zertan alferrik galtzen duten dirua.

Guk behar duguna, da, gizarte guztia espresa dadila. Libre-libre eta konplejo gabe espresa dadila. Komunika dadila bata bestearekin.

Prolet-kulturalismoa kritikatu dugu. Orain, halare, ordua da, ikastekoak ikasteko. Eta horixe dugu handik ikastekoena.

Literatura garaia

Hortik aurrera, bedeinkatuak espresioa eta komunikazioa arte eder bihurtu nahi dizkigutenak: «literatura», hots, literatura garai deritzana. Bedeinkatuak espresioarekin eta komunikazioarekin esperimentuak egin nahi dituztenak. Libertatea behar da hortarako ere; eta libertatea sortzen dute horrekin ere. Behar dugu, bai; baina etxegintza ez da teilatutik hasten.

Desilusio eta neke piska bat somatzen da, agian, teilatua egin nahita zebiltzan horien artean, edo esan dezagun hobeki, oraindik bukatu gabeko etxea edertu nahita ari zirenen artean, «literatura eder»gileen artean. Izan ere, lan gaitza izan bait dute. Gaitza, kondizio gabekoa.

Orain arte oinarrizko lanetan aritu gara gehienbat. Aurrerantzean, eraberritu beharra dago horien lan baldintzak. Literatoak hizkuntzaren nagusi behar du, lehenik. Eltzegilearen antzera, hizkuntza moldatu, itxuratu, erre behar dizu. Ez du ezer egiten, irudia moldatzen ari dela, buztina esku artean hautsa bezala desegiten eta apurtzen bazaio. Euskara batua ez da, behar dugun euskara eginaren hasera besterik. Euskarak behar ditugu: teknikoa, periodistikoa, baserrikoa eta kalekoa, poetikoa. Euskarak, pluralean, eta guztion euskara batua.

Idazleak askatasuna behar du kreatibo izateko. Hizkuntzari buruz, tradizioei buruz, inguruaren kontra. Herriaren problema larriei buruz eta herriaren kontra ere askatasuna. Kritiko izanez bakarrik da libre. Kritiko eta libre behar dugu literatura.

Libertate honek bai, aberastasuna suposatzen du: aberastasun kulturala. Obra ederrik posible da, izan, miseria gorritan. Errepresio beltzetan. Baina literatura ederraren produzioa normaldu nahi badugu, noizik behingo obrekin konformatu gabe, ezinbestezko dugu oinarrizko aberastasun hura. Hura indartzen dugula bakarrik, izango da literatura ederraren produzio normalik ere, posible. Bitartean, kometak agertuko dira gure zeruan, baina zerua ez dago izar.

Halare, gauzak ez dira orain hau eta gero bestea ibiliko. Elkarrekin batera joango zaizkigu. Ohartu dugu hori. Eta, beraz, gure literaturgintza oraintxe bertatik literatur azterketak egiten hasi da. Esperimentuak eta esperimentalistak abiatu dira iadanik. Euskara zirkoan aterako dutenak. Baina organizazio berri bat behar dugu literatur produzioan, bakarka eta tantaka ez aritzeko. Argitaldari eta aldizkari literarioak, batik-bat. Baina ohiturek ere organizazio molde bat sortzen dute. Ohitura berri batzu beharditugu, hortakoz. Harreman eta komunikazio gehiago literato artean, bata bestearekin, zuzen-zuzen ala publikoaren bidez. Publikoarekin komunikazioa. Rezitariak, eta abar, hortakoz. Kritika. Kritika behar dugu. Kritikoen eta literatoen artean komunikazio gehiago behar dugu. Benetan funtzionatzen duen idazle elkarte bat behar dugu, komunikazioa ongi eta naro-naro kanalizatzeko, bizi-bizi. Sozialdu beharra dago bakar lanen eremu literarioa.

Irakurleak ez du harritu behar, euskal idazleen ereduak eta Maisuak arras diferenteak badira beren artean; eta batzuetan literaturarekin zerikusirik ez dutela ematen badu. Edo liburu hoberenen artean, esate baterako, karaktere guztiz ezberdinetako liburuak aipatzen badira. «Literatura» hitzak, esaten dizudanez, zentzu berezia du guretzat: errealitateak agintzen duena. Historiak utzi diguna. Txirotasun eta eskasiaren muga herstuek baino gehiago, eginkizunaren beraren gaurko batasunak ematen du literatur errealitate hori: inbestigazio lanetik poesiaraino doan batasuna. Gaur-gaurkoz, Natur Zientzietako hiztegi bat poesia da euskaraz!

Hurrengo urteotarako, teatroari aitortuko nizkioke xantre hoberenak, idazleek hortik jotzen badute behinik-behin. Irakurleria haundirik azkar lortzea baino errazago da, bizpahiru urtetan lor daitekeena, entzuleikusleria haundi bat. Jendeak elkarrengana biltzeko gogoa duela ere, badirudi. Askatasun euforiak eta, informazio goseak eta, giro aproposa sortzen dute teatroarentzat. Baina ezin teatro klasiko-klasiko bat izango litzateke. Ikusleak ikuskari eta kantaldietara ohiturik daude eta ohiturotan orientatu beharko luke antzerkiak. Nobelak, nik uste, oportunitate onak ditu. Orain arte gehien landua saioa da. Nobela, hein batetan, saio da. Joandako urteon jorra bat egin nahi bada —eta ezinbestezkoa dugu, nik uste—, jenero egokiena nobela izanliteke: kland estinitate, gartzela, herbeste gaiak barrentzeko eta goitzeko, nahiz beste mila problema planteatzeko; gudate urteek ere lanketa literario bat merezi luteke. Saioak, nik uste,

bere mailari eutsiko dio. Zerbait literarioago bihurtuko balitz, irabazi egingo luke.

Arrisku berriak

Askatasunak erraztasun haundiak sortuko dizkiola euskarari, uste dugu. Baina ez dugu engainatu behar. Arriskurik ekarriko diguna, bai, gauza segurua da.

Herstualdian, alienazioa gorrien-gorrien eta mingarrien zenean, zanpaturik, ia itorik, desesperazioz geure identitatea bilatzen genuenean, nazio hizkuntza estimatzen ikasi dugu eta prest egon gara, euskararen alde leherrenak egiteko eta sakrifikatzeko. Aurrerantzean halako izpiriturik izango al den, ikusi egin behar. Hotz aldi edo epel aldi baten arriskua dago; sentitu, identitate arazoa libertatean ez bait da hain larri sentituko, problemak funtsean berdintsu jarraitu arren. Egia esan, euskal Unibertsitatea lehenbailehen iristen ez badugu, nahiko pesimista izan gintezke. Izan ere, gauzak ez doaz gaizki, nahi baduzu; baina gaizki daude oraindik, oso gaizki.

Politikaren abiazarrada bizi-bizi bat ikusiko dugu, duda gabe, hurrengo urteotan. Bistan dago. Hainbeste denboran debekatuta egon den politika hori, guztion grina eta pasio bihurtuko da. Politikoak, oposizioan, gustora baliatu izan dira euskararen arazoaz. Hori ere bistan dago: zeuden eta ez zeuden problema guztiak aprobetxatu behar zituzten, oposizio absolutuan zebiltzan artean. Orain, ordea, problema eta problema artean aukerak egin beharko dira, bakoitzak bere egiazko interesen arabera. Ikusiko dugu euskararen arazoaz zein zenbat arduratzen den hemendik aurrera. Bestalde, orain artean hizkuntz arloan ematen zion bide gazte askok sozial kezkari. Orain aukera gehiago egonen dira sozial kezkak bideratzeko, Alderdi politikan, sindikalismoan; eta hizkuntz lan aspergarria baino erakargarriagoak gazteentzat. Andereño izateak edo baino prestijio gehiago emango dutenak ere bai, agian. Arriskuz arrisku joango dira gure urteak.

Azkenean, guretzat irteera bakarra dago: lana, elkar lana.

JOXE AZURMENDI

PROLOGO

¿Análisis sociológico de la literatura vasca?

Más debe de tratarse del análisis de una locura, de una pasión, que de producción alguna de verdad, con empresarios, tablas de mercado, estadísticas y demás omnisciencias técnicas del campo de la producción. Haga usted una investigación sociológica de Júpiter. Más le valiera, amigo mío. O de las cuatro bestias del Apocalipsis.

Pero, si usted se empeña, yo le contaré nuestra historia.

1950-1960: aguardando el amanecer

Esta es la literatura del hidalgo vascongado. Aquel que dicen que se murió de hambre. Heredero —parece— del otro, del señor aquel de Alzate. Aquí, en Euskadi, no acaba de morir. Ni muere, sino vive, de hambre. Resucita cada día más, duplicado y triplicado. Es difícil decir en virtud de qué extraño misterio.

También el escritor vasco es una extraña especie, que por estas tierras puede toparse a veces, los días de niebla. Que de turbio en turbio ha de pasar los días de su vida, sin siquiera poder regalar generosamente su fuerza de trabajo. El papel está caro. Manchado de cuatro letras en euskera, más caro, carísimo. Por ser usted conspirador o algo así. Escriba usted en euskera un telegrama. La señorita le dirá que qué es eso, que eso no es una lengua, que usted ha empleado un código en clave inútil y que tiene que pagar tanto y tanto. Y parece que la señorita lleva razón, por un decreto de 1896, que diz que prohíbe el uso del euskera en Correos y Telégrafos...

El escritor vasco es el artista inesperado que escribe en una lengua que no existe y es, sin embargo, entendido, por los que tienen que entenderle.

Usted se acuerda de que leyes y decretos y demás bulas hay muchos: que prohíben el euskera en Correos y Telégrafos, que prohíben el euskera en las escuelas, que prohíben el euskera en los sermones, que prohíben el euskera en la enseñanza del Catecismo a los niños... Y usted dice que apañaditos estamos si hacemos caso de tanta ley. Y al decir usted eso, se encuentra ya en el camino de la santidad y de la perfección. Pues, como escritor vasco, se va a pasar usted la vida diciendo ¡que ya, ya!...

Ya veo: usted no querrá hacer caso de esas leyes. Pero sí que ellas de usted.

Toda su existencia desde hoy se moverá en el límite extremo de la legalidad, al margen mismo del derrumbadero. Usted escribe un novenario para rescatar las pobres ánimas del purgatorio —en euskera, bien entendido— y usted es, cuando menos, altamente sospechoso de simpatías rojo-separatistas. No olvide que usted pertenece a una provincia oficialmente declarada traidora. Oficialmente declarada provincia, en primer lugar. Por mucho que usted crea que pertenece a una nación, a la nación vasca. Usted puede pensar eso, porque el general dice que en España hay libertad de pensamiento, pero hará mejor en no pensarlo muy alto. Podrían oírselo. Libertad de ser oído no hay.

Pero hay una clásica tradición muy española que habla del borrico vizcaíno. *Y usted, hijo de carlistas, hijos de carlistas, hace honor a la tradición. Con su fidelidad de siempre y a pesar de los pesares, escribe su novena por las santas ánimas del purgatorio.*

Escribir unas páginas no es difícil. Usted lo ha aprendido, incluso gracias a la generosidad del nuevo Estado. Y gracias a un maestro sádico apodado «Beltza» en el pueblo, el Negro, que no se sabe de dónde vino, a quien se saluda brazo en alto. Seis años tenía usted cuando llegó a la escuela. La letra, que con sangre entra, bien que le entró a usted, mientras a ratos cantaba que si Isabel y que si Fernando, y que si empezaba a amanecer. Nunca acababa de amanecer. Pero eran los únicos minutos agradables de clase. Cantando: «...si te dice que Caín, me fuin, al puesto que tengo allín». Bien, usted aprendió a hablar en español. Que es lo que se debe. Ya puede usted escribir unas páginas.

Muy bien.

Usted escribe sus páginas y se va usted ahora a recorrer las oficinas de Información y Turismo; amplíe usted los pasillos de sus inacabables pacien-cias, vea por qué puerta amanece. Usted ha escrito una serie de páginas, pero, ¿ha escrito usted también alguna idea? No está mal. Tal vez podrá usted publicar un tercio de su idea. Exactamente el tercio que no era suyo y no era idea. En caso contrario, puede usted tratar de ver si la censura es más amable en Bilbao, o en Pamplona, o en Vitoria, o en San Sebastián. Si no, usted se coge los papeles y en Bayona todavía es posible publicar un misal en euskera, sin ser por eso terrorista. Y en México, dice que incluso se pueden publicar poesías vascas.

Pero el año de gracia 1950 y pico, no-sé-cuantésimo de la Victoria, usted y otros «borricos» han conseguido, al fin, que algunas cositas puedan publicarse en euskera. La Diputación, y el señor Censor, el mismísimo Delegado del

Movimiento y otros señores, que son amigos del amigo de su amigo, aquel que es bibliotecario, que fue requeté en el Tercio de la Virgen de Valbanera —el pobre estaba de vacaciones cuando civilmente le estalló la guerra— pues hacen la vista gorda, por no molestarse con el amigo de su amigo. Además, ya no vale la pena. El Su Santidad del Vaticano, el príncipe Pacelli, ha condenado y excomulgado solemnemente por su Santo Oficio a los comunistas y apoya incondicionalmente al nuevo Estado. Se firma el Concordato. La Asamblea de las Naciones Unidas ha permitido establecer embajadas en Madrid. Stanton Griffis llega con el saludo de Truman. Llegan también los créditos del Chase National Bank, del Import-export Bank, que el Congreso norteamericano ha autorizado. España entra en la FAO. España entra en la UNESCO. ¡ Bienvenido, Mr. Marshall! Por fin amanece, la noche. Todo va de perlas. Las cosas han cambiado verdaderamente mucho. Usted y los demás «borricos» pueden incluso publicar algunas páginas en euskera. Y no sé lo que pasará, pero fusilados no serán ustedes.

Primero se trata de ir recogiendo los restos que han sobrevivido la guerra y el orden. En este momento tiene usted algunos despistes graves. Por ejemplo, usted se había imaginado, inocentemente, que la guerra ya había terminado. No lo había entendido usted bien. Sí, es verdad que el General así lo ha dicho, pero era para los vencedores. El General habla sólo para los vencedores. Usted no es de esos. La guerra ha terminado. Ahora se llama orden. Orden. Ya lo irá usted aprendiendo.

Eso quiere decir que usted ya puede escribir sobre las ánimas del purgatorio.

Usted escribe sobre las ánimas del purgatorio. Han pasado veinte años desde que estalló la guerra, tan civil. Y resulta que entre tanto ha crecido una generación, que no se interesa absolutamente por las ánimas del purgatorio. Que no sabe ni leer ni escribir en vasco. Que no ha oído nunca ni que haya habido una literatura vasca. Que, en cambio, ha oído constantemente que el vascuence es un dialecto despreciable de aldeanos ignorantes. Que ha sido severamente castigado cada vez que en la escuela —o en la calle— el maestro le ha sorprendido hablando euskera. El «Beltza» aquel. Que se avergüenza de saber euskera. Y cuyos padres no quieren que el hijo hable euskera.

No importa, dice usted: ya los recuperaremos. Y usted escribe. No quiero saber dónde ha aprendido usted a escribir en euskera, porque eso nos llevaría otra vez a los contubernios tan conocidos. Usted escribe. Pero usted se da cuenta de que no existen librerías vascas.

Ninguna revista vasca.

Ninguna publicación.

No puede usted ni hacer publicidad —propaganda ilegal— de su papeles.

Usted, que además de autor es el editor de sus papeles y el empresario (de sus deudas), se hace también el vendedor de los mismos. Va de casa en casa. Naturalmente, de casa en casa de los trabajadores. Los otros ya lo han aprendido y leen ahora en español. Pero los trabajadores no leen. No tienen dinero para libros.

Usted, que tiene que vender sus papeles a precio de papel, aprende las reglas del marketing ese: primero hay que saber leer para ser lector. El escritor vasco escribe para enseñar a leer. Usted escribe, escribe, escribe. Va de casa en casa. Se vuelve loco. Se muere (en Euskadi se ha muerto uno muchas veces). Unos pocos «borricos» —de entre los de la tradición clásica— le ayudan. Prudentemente. A distancia. Y poco a poco la gente aprende a leer.

Un día llaman a su puerta unos muchachos. Han aprendido a leer y quieren aprender a escribir. Son estudiantes. Alguno que otro obrero. De noche escuchan Radio París. BBC. Moscú. Praga. Radio Euskadi. Alguien ha encontrado en la biblioteca de la Diputación una gramática vasca. La roba. Es de antes de la guerra. Dale al verbo: zeniezazkidaken, zeniezazkidaketen... *Ustedes no se vuelven locos, porque ya lo estaban.*

Hay que buscar libros. Hay que entablar contacto con los autores en exilio. En París. En Londres. En Guatemala dicen que aparece una revista donde colaboran los mejores escritores vascos. En Nueva York sale Argia. *Al fin se enlaza con el famoso contubernio. Consiguen las revistas. Las reparten. Aprenden a escribir. Enseñan a leer. Entablan contacto con autores vasco-franceses. Con el monje y con el anarco-fascista anticlerical. Ya son un puñado. Van a las huelgas. Hablan con los grupos de danzas. Se revientan, monte arriba, con los montañeros. Visitan a los curas. Cenan con el viejo carlista. Hablan, discuten. Y un buen día usted descubre el milagro: ya no son un puñado. Son muchos los puñados que en Bilbao, en San Sebastián, en Vitoria, en Eibar, han empezado a moverse.*

Mal que bien. se reorganiza Euskaltzaindia, *la Academia de la Lengua Vasca.*

Se multiplican las reuniones y las reuniones al margen de las reuniones.

Hay que enseñar a leer. Se intenta crear ikastolas.

Hay que crear editoriales, revistas. Surgen Itxaropena, Auñamendi, Auspoa; *las revistas* Egan, Jakin, Olerti *(las más sin autorización ninguna). Se reeditan clásicos. Se escribe poesía nueva. Teatro. En algún sótano ensayan los actores. Aparece incluso una primera novela. Se traduce: Brecht, Cela, Hemingway...*

En los últimos años 50 Euskadi está en ebullición. Euskadi hierve. Social, política, culturalmente. El verano de 1959 se constituye ETA.

Uno de los primeros y más importantes poemas de postguerra se titula Bizi nahi: *querer vivir. Nacido como debe ser: escrito en Euskadi, publicado en Guatemala.*

Antigua y continua agonía

Es ésta una historia realmente vieja. Fascismo arriba y fascismo abajo, los escritores vascos de hoy no nos sentimos más castigados por el destino que nuestros antepasados. Al contrario, nos sentimos más apoyados por nuestro pueblo, que generación alguna de escritores anteriormente.

En Castilla, en vísperas de la conquista violenta de Navarra —a traición—, el humanista Nebrija resumía, en aquella propuesta hecha a la reina Católica, toda una filosofía política, de la difusión peninsular e imperial del castellano:

> Cuando bien conmigo pienso, mui esclarecida señora, y pongo delante los ojos el antigüedad de todas las cosas que para nuestra recordación i memoria quedaron escriptas, una cosa hallo i saco por conclusión mui cierta: que siempre la lengua fue compañera del imperio, i de tal manera lo siguió que junta mente començaron, crecieron i florecieron, i despues junta fue la caida de entrambos.

Cuando Nebrija escribe esas recomendaciones, un tanto veladas, al frente de su Gramática castellana, *España no es todavía ningún imperio. Pero piensa serlo. Sus ambiciones son patentes. Los planes de expansión están ya trazados. Y, sobre todo, la política de imperialismo lingüístico a seguir está ya fijada de antemano. Su confesor, Hernando de Talavera, aconseja, sabia y abiertamente, a la esclarecida señora:*

> Después que Vuestra Alteza meta debajo de su yugo muchos pueblos bárbaros y naciones de peregrinas lenguas, y con el vencimiento aquellos tengan necesidad de recibir las leyes que el vencedor pone al vencido y con ellas nuestra lengua, entonces por esta arte gramatical podrán venir en el conocimiento de ella, como agora nosotros desprendemos el arte de la lengua latina para desprender el latin.

La literatura vasca, que comienza con un autor navarro —de la Navarra derrotada y dividida, como sigue hasta hoy—, ya desde su primera página comienza con una vehemente protesta contra las burlas y vejaciones de que la lingua navarrorum *es objeto. Burlas y vejaciones que Moret, el cronista del reino pirenaico, volverá a constatar y acusar como causa del debilitamiento del euskera. La literatura vasca comienza, asimismo, proclamando al euskera, por boca del autor navarro Etxepare, lengua nacional de los vascos.*

De Nebrija a nuestros días corre una densa e ininterrumpida tradición. Pasando por Cisneros y por Felipe II, por ejemplo, que creían que moriscos e indios no podían ser buenos cristianos si no hablaban castellano. Pasando por Carlos III, el muy ilustrado, gran civilizador de indios, que disparaba decretos reales para que de una vez se llegue a conseguir el que se extingan los diferentes idiomas de que se usa en los mismos dominios, y sólo se hable el castellano. *Y pasando también —si usted permite— por los no menos ilustrados e ilustradores partidos socialistas obreros españoles, que honraron a Euskadi declarando sin rebozo, llevados naturalmente de su generoso internacionalismo y sin menoscabo de su ferviente amor al pueblo vasco:* Quisiéramos un Gobierno que prohibiese los Juegos Florales..., que no permitiera la literatura regionalista y que acabara con todos los dialectos y todas las lenguas diferentes de la nacional. *Que también de eso se encuentra en la curiosa historia de Euskadi.*

Concluimos este brevísimo —vergonzoso— repaso histórico, con una voz autorizada que revela la política lingüística que nos ha tocado vivir a los es-

critores vascos de hoy. El autor, señor Ibáñez Martín, Ministro de Educación Nacional (1939-1951), retorna significativamente a Nebrija, con lo que cerramos redondamente el ciclo:

> Elio Antonio de Nebrija —y ésta ha de ser para todos los que lean las páginas de su Gramática la idea fundamental que más hondo cale en sus espíritus— fue, ante todo y sobre todo, un gran español. En pocos escritores de su tiempo he visto resplandecer con tan luminosa claridad la auténtica metafísica de España, y muy pocos me han hecho vibrar con tan cálida pasión de patriotismo. Nebrija estuvo presente en la gran hora histórica en que se consagra la unidad española, como el más grande cimiento de nuestra grandeza nacional (...). La unidad lingüística se requería así, como complemento de la unidad política (...). Una patria grande y unida ha de poseer una lengua común. Y ello por la necesidad imperiosa de que sea uniforme la voz de todos los españoles, y esa voz pueda conservarse en el futuro.

El viacrucis del escritor vasco es muy anterior a la Cruzada, a la liquidación de los Fueros, a las guerras carlistas, al «separatismo» vasco que sigue a la Revolución Francesa, a las burlas de Llorente y a las maquinaciones de Godoy, anterior también a la prohibición del Conde de Aranda de que se publicara nada en euskera sin su autorización personal. Es la historia de la constante amenaza de aquel pueblo que el Príncipe de Viana representó en su escudo en la forma de un hueso que dos perros —del norte y del sur— quieren llevárselo.

El escritor, cuya misión, en cierto modo, debería consistir en combatir contra *su pueblo, se encuentra en Euskadi constreñido a defenderlo, a consolarlo, animarlo y darle esperanza; guiarlo, si puede; a ser el maestro de escuela que a este pueblo se le niega; a recordarle su historia, que se le oculta; sus tradiciones artísticas y políticas. Retener, es la primera consigna del escritor vasco. Tiene que sacrificar hasta la misma vocación de escritor. Es la única manera que tiene de ser un escritor honrado: perderse en el pueblo. Ser «conservador», para impedir el despojo a todos los depredadores.*

Pero el escritor vasco no tiene que enfrentarse a diario solamente con la agresión externa. La cultura popular vasca ha sufrido y sufre una agresión interna no menos violenta por parte de la Iglesia, así como por parte de la burguesía palurda súbitamente enriquecida, que venga el complejo de su propia barbarie y falta absoluta de cultura, despreciando y persiguiendo a muerte la cultura y lengua vascas. Esos señores creen alcanzar un nivel cultural digno de su posición, comprando discos de Vivaldi —grabados, naturalmente, en el extranjero—, que los días de visita hacen escuchar a los honorables invitados; o comprando libros por metros, que adornan la sala-estudio; o cuadros de grandes dimensiones, cuyo precio no puede bajar del millón, de pintores que tampoco sean de aquí cerca, naturalmente.

> El enemigo que nos aniquila —se quejaba ya Campión—, el enemigo que pretende borrar hasta el nombre de euskaldunas, el

desalmado aventador de nuestras tradiciones, el sacrílego violador de los sepulcros patrios, es enemigo doméstico.

El discurso del escritor y político Arturo Campión, diputado por Navarra, pronunciado en el Parlamento español a raíz de la «gamazada», en 1893, define la misión de aquellos diputados navarros, y bien sirve de definición fundamental de las funciones del escritor vasco ayer y hoy:

> Aquí estamos los diputados navarros [léase, los escritores vascos] cumpliendo la misión tradicional de nuestra raza, que tanto en la historia antigua como en la moderna, y aún en la contemporánea, se expresa con el vocablo: RESISTIR. Aquí estamos escribiendo un capítulo nuevo de esa historia sin par, que nos muestra a los vascones defendiendo su territorio, su casa, su hogar, sus costumbres, su idioma, sus creencias, contra la bárbara ambición de celtas, romanos, godos, francos, árabes, y efectuando el milagro de conservar incólume, por luengos siglos, su nacionalidad diminuta, a pesar de Francia, de Aragón, de Castilla... La historia de ayer es la historia de hoy; y de igual suerte que nuestros progenitores defendieron el suelo patrio contra los ataques del extranjero, a quien no provocaban, estamos ahora defendiendo nosotros nuestro derecho.

Gabriel Aresti, representante de la poesía vasca de postguerra, muerto muy joven el año 1975, lo expresaba vigorosamente en una poesía, cuya débil traducción española dice así:

> Defenderé
> la casa de mi padre.
>
> Contra los lobos,
> contra la sequía,
> contra la usura,
> contra la justicia,
> defenderé
> la casa
> de mi padre.
>
> Perderé
> los ganados,
> los huertos,
> los pinares;
> perderé
> los intereses,
> las rentas,
> los dividendos,
> pero yo defenderé
> la casa de mi padre.
>
> Me quitarán las armas
> y con las manos defenderé
> la casa de mi padre;

me cortarán las manos
y con los brazos defenderé
la casa de mi padre;
me dejarán
sin brazos,
sin hombros,
sin pechos,
y con el alma defenderé
la casa de mi padre.

Me moriré.
se perderá mi alma,
se perderá mi prole,
pero la casa de mi padre
seguirá
en pie.

Ahí está, pues, el escritor vasco: ¡ecce homo! *En medio de un pueblo sañudamente perseguido por propios y ajenos durante siglos. Eternamente burlado, pisoteado. Clásico perdedor de guerras y defensor de causas perdidas. Pueblo al que propios y extraños han negado violentamente toda cultura propia. Le han destrozado su lengua. Le niegan todo acceso a la historia propia y tratan de borrarle por todos los medios su conciencia. No sepa quién es, para que no vea qué han hecho y qué están haciendo de él.*

Por eso mismo, la historia del escritor vasco no es sólo la historia de la resistencia vasca: es también la historia del hijo del hombre que vino a los suyos y los suyos no le reconocieron. Porque a los suyos esos, ya les habían arrancado los ojos. Imagínese una sociedad española en la que obispos, banqueros, gobernantes, industriales, maestros y maestras, comerciantes, curas, alcaldes y demás gente esclarecida, digamos, si usted les pregunta: «¿Sabe quién era Cervantes?», *le fueran respondiendo uno tras otro:* «¿Cervantes? Ni idea». *Pues esa es la sociedad vasca de hoy. ¿Quién es Axular? ¿Quién es Leizarraga?... Los pastores de Urbasa y los picapedreros de Markina han tenido que aprender de memoria en la escuela qué día y qué año, qué isla descubrió Colón, cómo se llamaban las carabelas aquellas, de dónde partieron, qué Pinzones las tripulaban, qué fue lo primero que hicieron al pisar tierra. Todo perfecto. Pero cuándo y cómo fue invadida Navarra y perdió su independencia, por ejemplo, haga usted una encuesta, ¡hágala!, cuántos alcaldes lo saben en el viejo reino mismo.*

Nafartarren arraza, hila da ala lo datza, *dicen los primeros versos del conocido poema al Vizconde de Belzunce, que todavía los batallones carlistas cantaban. En español:* «*¿La raza navarra está muerta o sólo duerme?*» *Ni está muerta, ni duerme. Pero sí está gravemente herida y se desangra. Eso es Euskadi. Y ahora vea usted en qué puede consistir ser escritor ahí.*

Literatura y sociedad

El escritor vasco, en general, no es propiamente un literato. Algún literato vasco lo ha llamado —no sin cierto desprecio— «escribidor». Y, sin embargo, la literatura vasca vive gracias al escribidor, al peón de la pluma, que día a día, o mejor noche a noche, sacrifica su misma vocación literaria

para dedicarse a humildes trabajos de pluma. En consecuencia, el de los escritores vascos es un grupo artísticamente mal diferenciado. La escasez de autores, el número reducido de gente que sabe escribir euskera, o puede hacerlo sin inconvenientes políticos y económicos demasiado grandes, y la multitud de los quehaceres, obligan al autor vasco a multiplicarse y a escribir de todo y en todo: del periódico al libro, poesías igual que libros de investigación o libros de texto, el panfleto clandestino y el guión radiofónico de solemnidad. Casi siempre, lo que le han encargado. Siempre, con prisas. O bien el escritor vasco es, además, editor, cantante, actor de teatro (de las obras de su amigo, también escritor), librero, político por pasión, etc., y ejerce algún oficio, pues del oficio se vive, amigo, no de la pluma.

El escritor vasco no es, pues, un literato. Hoy por hoy se reduce a realizar los trabajos de pluma más urgentes y elementales, con los que cree realizar un servicio a su pueblo. La literatura vasca es literatura de catacumbas. Literatura realizada a pedazos de noche, entre muertes y muertos, por un subproletariado que no se cansa de martillear con la pluma. Creo que la conciencia del escritor vasco es muy particular y característica. Se siente más directa e inmediatamente comprometido con su pueblo, que con la literatura, que es su métier, *en cuanto arte. Lo que le da ese carácter «político», de que ha sido achacado con frecuencia. Es un militante de la* résistance *espiritual. Más de uno ha llegado a escritor, no por vocación literaria, sino atormentado por la miseria cultural que padece su pueblo. Para el escritor vasco la misma poesía, que él desearía fuera una viola, se convierte en martillo, instrumento de trabajo... El escritor vasco es más consciente que nadie de su precaria condición. Pero él sabe también, mejor que nadie, que si la historia —digamos que la historia— ha convertido a este pueblo en un pueblo de parias culturales, éste no puede ofrecer mejor fortuna a sus escritores. Es un Prometeo encadenado. Encadenado a su pueblo encadenado. Condenados de esta tierra.*

Es triste la literatura vasca. La literatura que corresponde exactamente a nuestra historia, que no tiene nada de «gloriosa». (Los dioses tengan la bondad de preservarnos también en el futuro de historias gloriosas, si al menos tienen la bondad de preservarnos por el momento de una ignominiosa muerte). Euskadi no tiene Escoriales, Valles de los Caídos. Sí un montón de caídos por los siglos de los siglos. Un pueblo de trabajadores. No de conquistadores. La literatura que corresponde a nuestra cultura: popular y molesta. Sin universidades, sin salones de Madame de Rambouillet, sin cafés literarios burguesitos. Eso que llaman ustedes cultura, seguramente no existe en Euskadi. Boccherini y otras cortesías.

A la raza vasca —*decia Ortega y Gasset*— único grupo étnico peninsular que conserva vigorosas las disciplinas internas de una raza no gastada (?), sólo le falta cultura. *Sánchez Albornoz sabe muy bien —porque Sánchez Albornoz sabe muchas cosas muy bien - que los vascos tenemos* mil años menos de civilización que cualquier otro pueblo... *Cultura y literatura vascas son cultura y literatura del pueblo trabajador y del clero bajo más allegado a las clases trabajadoras. No de sus clases dominantes, ni de la nobleza, ni de la burguesía. Una cultura que desde ciertas altísimas alturas ni siquiera se ve, por lo visto.*

Aquí, en Euskadi, donde las palomas son un comestible más, la literatura no es un género de consumo. No es flor. Busque usted una flor en Bilbao.

Literatura es trabajo. Arados, yunques, barcos. Es una herramienta. Es la vida dura y larga de las gentes que viven muriendo, en el polvo del trabajo, en el monte, en el mar oscuro, en la iglesia de paredes altas, entre horribles camiones, en tabernas llenas de hombres. Literatura sin mujer. Hecha siempre con fines muy concretos. Sin libertades. De resistencia: dura e inmóvil. Sin ataques. Sin conquistas.

Sin embargo, el pueblo trabajador vasco no habla sólo el lenguaje del martillo. Ni es monolingüe en espadas, espadones y demás cimitarras, aunque largo tiempo algunos no le hayan hablado otro lenguaje que el de los sables. El pueblo trabajador vasco tiene su arte, su literatura.

Hoy asistimos a un sorprendente y enérgico resurgir de la cultura y literatura vascas, que algunos creían definitivamente condenadas a muerte. No pocos observadores hablan incluso de un renacimiento cultural vasco. Puede llamársele como guste. Seguramente serán los escritores vascos los últimos en considerar de ese modo este fenómeno, que en sí es indiscutible. Para ellos no se trata de Renacimiento. Es la «larga marcha».

Ni se trata de un fenómeno específicamente vasco, ni de un fenómeno primordialmente cultural. Se trata, en Euskadi, como en Catalunya y en Galicia y en todas las minorías oprimidas, de un fenómeno radicalmente político, reflejado en el campo cultural. Renacimiento cultural que responde al renacimiento nacional.

Para nosotros, escritores vascos, el euskera o vascuence es la lingua navarrorum, *la lengua patria, como lo definiera el rey Sancho el Sabio. (¡Mire que también los vascos tengamos un rey Sabio!) Cuando nosotros hablamos de literatura, hablamos, sobre todo, de la falta de literatura, pues hablamos del pueblo vasco sempiternamente burlado, ultrajado. El escritor vasco no sólo escribe para ese pueblo; escribe, sobre todo, en lugar de ese pueblo y en nombre de ese pueblo, que una determinada política ha reducido sistemáticamente al analfabetismo total en su propia lengua. Nosotros no reclamamos el derecho de hacer lindas poesías a la pura, encendida rosa en una u otra lengua. Reclamamos el derecho a existir como nación vasca. A figurar como nación con cultura propia, con literatura propia, entre las naciones. A rehacer esta personalidad deshecha.*

Por eso mismo, el escritor vasco se ve obligado a luchar no sólo contra la dictadura, la censura, las ideologías y los nacionalismos dominantes, internacionalistas algunos de ellos —todos igualmente opresores—, las represiones personales de todo tipo y todos los demonios que apestan el aire desde hace cincuenta años. El escritor vasco no puede hacerse ilusiones en este sentido. No lucha contra cincuenta años, lucha contra la historia. El lucha contra las clases oligárquicas que la siguen despreciando y explotando; contra el Estado que nació no reconociendo la personalidad política, ni la cultural, de la nación vasca; contra las tradiciones y contra todo el universo heredado de hábitos de pensamiento y valoración, responsables, en definitiva, de la opresión y de la miseria cultural vascas. El escritor vasco entiende su labor como la creación de una necesaria contra-cultura, que no es precisamente anticultura. Bien sabe él, que ello sólo es posible dentro de una revolución de y contra la historia. Porque historia seguimos llamando a la historia de los vencedores. A la historia de las clases dominantes. Cultura, sólo a la cultura

de las clases dominantes. En esta lucha, que sólo puede tener sentido si es la lucha del pueblo entero, el escritor no es ni protagonista ni vanguardia. Pero sí tiene un campo bien definido.

Antes que nada y antes que todo, la revolución cultural consiste en que haya cultura. Y la cultura, o es propia, o no es.

Durante siglos se ha pretendido obligar a los oprimidos a hablar el lenguaje de los dominantes. A sentir como ellos. A llorar y reír como ellos. Pero la historia que se sigue enseñando y aprendiendo no es la de las clases dominantes porque las dominadas no hayan tenido historia ninguna. Sino porque éstos, realmente, han hecho la historia de aquéllos. Han hablado el lenguaje de aquéllos y es hora de que hablen su propio lenguaje. Esa es la función del escritor vasco. Que el pueblo vasco haga su propia historia y hable su lenguaje propio.

1960-1975: la larga marcha

Los años 1962-1963 se publican 66 libros en euskera. Los años 1972-1973 han sido 101.

Si prescindimos de la literatura publicada en el exilio, después de la guerra, la literatura vasca guarda, durante más de diez años, silencio de muerte. El primer libro vasco literario editado en Euskadi tras la ocupación vio la luz el año 1949: un poema religioso de Salbatore Mitxelena. Poco después el autor se vio obligado a emigrar.

Sigue la edición del poema Euskaldunak, *de Orixe, el año 1950, obra terminada en vísperas de la guerra; mientras su obra se edita en Euskadi, el autor vive en exilio.*

La guerra tuvo consecuencias funestas para el desarrollo de la literatura vasca, que precisamente acababa de iniciar, en los años 30, una interesante y prometedora renovación. Sin embargo, los mayores obstáculos que la literatura tendrá que superar en nuestros días no provienen directamente de la guerra. Nuestra generación literaria se verá obligada a reanudar, con treinta años de retraso y con la correspondiente violencia, la obra de radical renovación que la generación de anteguerra se vio impedida de realizar; renovación que no tiene otro fin que hacer del euskera la lengua realmente nacional de los vascos, como lo había proclamado el Proyecto-Estatuto de Estella en 1931.

El euskera, como lengua no oficial, es una lengua inútil, *cuando no —en diversos sectores muy importantes— una lengua* inexistente, *por ser lengua oficialmente proscripta. Así, por ejemplo, en todo el sector de la enseñanza, desde las escuelas elementales a la universidad. Los esfuerzos que diversas instituciones y personalidades vascas han realizado repetidas veces a través del siglo XIX y de éste que padecemos, por institucionalizar la enseñanza en lengua vasca, todos ellos se han visto —excepción hecha del breve período de gestión del Gobierno Vasco— abocados al más absoluto fracaso. Y, ciertamente, no sólo por la intolerancia del Gobierno centralista, sino también y, tal vez sobre todo, por culpa de las clases dirigentes vascas, desde siempre desdeñosas de*

toda cultura vasca. Asistimos al mismo espectáculo en el siglo XVIII. E incluso en el XVI.

El resultado natural ha sido que el pueblo trabajador asimilara la ideología dominante y desdeñara a su vez el euskera. Conocida es la declaración de los obreros eibarreses: Hablamos vascuence, porque no sabemos español. Nosotros hablaríamos con muchísimo más gusto en este idioma, pero querer no es poder. *O la otra declaración de un ayuntamiento vasco:* Este ayuntamiento, junta local y padres de familia, han recomendado siempre a los maestros que no permitan nunca que sus discípulos hablen el vascuence dentro ni fuera de la escuela, pues desengañados estamos de que lo que necesitan los jóvenes es saber el español. *No son cosas de la oscura Edad Media. Son casos de este muy civilizado siglo XX.*

Los escritores vascos, si bien no han dejado de protestar contra esta situación, se han resignado a ella. Se han limitado a protestar y a resistir pacífica y pacientemente. Se han refugiado en los campos que aún les quedaban, produciendo por lo general una lastimosa literatura marginal: literatura religiosa y poesía facilona. Se han mantenido a la defensiva. Pero han mantenido la defensa justamente en los campos que no eran de batalla...

Gracias, sobre todo, al impulso de Sabino de Arana Goiri, la anteguerra conoce un primer cambio de actitud en los escritores vascos. Estos se muestran mucho más ambiciosos. No se limitarán ya a la defensiva. Luis Michelena ha destacado en estos escritores el espíritu nuevo, que había de transformar en muchos aspectos las características de la literatura. *En pocos años puede constatarse una pequeña pero selecta producción literaria. Pertenecen a esta época dos figuras máximas de la literatura vasca: Lizardi, Orixe. Con razón escribiría Azkue:* ¿A quién, después de Dios, se debe el renacimiento vasco en todas sus manifestaciones? Fundamentalmente, principalísimamente, a Sabino de Arana Goiri.

> Ya no es la poesía el único género cultivado desinteresadamente; desaparece el antiguo predominio de las obras de edificación y formación religiosa, aunque, desde luego, el fondo de todo lo que se escribe sigue siendo estrictamente católico; se trata con empeño de buscar a la lengua nuevos campos de manifestación, de cultivar los que estaban sin cultivo, y, por consiguiente, es cada vez mayor el número de traducciones de obras profanas consideradas como modelos (L. Michelena).

La guerra dio al traste con estas actividades. Tras los duros años de postguerra, el decenio 1950-1960 ve reagruparse nuevamente a los escritores vascos, destacando entre ellos los autores jóvenes.

De todos es conocida la agresividad social y política que el pueblo vasco ha venido manifestando desde los primeros años 60. Fácilmente se observa la correspondiente agresividad en el campo cultural, en nuestro caso en el campo literario, tanto en lo que concierne a las ideas como a las formas. Las ambiciones truncadas de la generación de anteguerra hallarán su continuación, en forma tanto más radicalizada, en esta nueva generación de escritores, que rompe decididamente con las limitaciones tanto formales como temáticas de

la literatura clásica vasca. La voz de Etxepare vuelve a resonar con nuevo brío: Heuskara, ialgi adi plazara; ialgi adi mundura.

El movimiento literario ha estado y está íntimamente ligado con el movimiento cultural de estos años en general, y muy especialmente con el movimiento de ikastolas, *campañas de alfabetización y cursos de enseñanza de la lengua vasca. El éxito del enorme esfuerzo de adaptación que a través de estos difíciles años de paz se ha llevado a cabo en el campo de la literatura, depende ahora, de modo decisivo, de que las instancias políticas responsables permitan y positivamente promuevan la creación de la infraestructura básica necesaria: escuelas vascas, universidad vasca; institucionalización y apoyo económico de los cursos de enseñanza del euskera; planificación, institucionalización y apoyo de las campañas alfabetizadoras.*

La larga marcha no ha hecho más que empezar. Aún queda un largo camino hasta que la lengua vasca sea efectivamente la lengua de todos los vascos. Digamos que no más empieza a amanecer... A propósito: al igual que hasta hoy, en ese largo y difícil camino, al escritor vasco siempre le cabrá el consuelo, cuando menos, de saberse unido con el pueblo trabajador vasco en «la unidad de destino en lo universal», cualquier cosa que eso sea. Séale también lícito a un escritor vasco valerse de cuando en cuando de tan altos, sonoros y significativos conceptos.

JOXE AZURMENDI

HITZAURRE GISA

HITZAURRE GISA

LIBURU HONEN ASMOA

IDAZLEAREN SOZIOLOGIA

Gaurko euskal idazleriaren soziologia izan nahi luke liburu honek. Idazleriarena, eta euskal liburugintzarena. Idazlearen azterketa batetan, izan ere, liburugintzari, kultura inprimatu guztiari eta gizarte-ingurumariari ohartzea eta kasu egitea ez bakarrik onuragarri, baina beharrezko ere bada.

Gainera, hasera hartan, liburu honek asmo zabalagorik gutiziatu zuen. Euskal Herriko kultura idatziaren fenomenoa, hirutan partitua, aztertu nahi nuen: idazleriaren azterketa lehenengo, argitalketa eta banakuntza gero, eta azkenik irakurketa eta irakurleriaren ezagutzapena. Azterketa luzeago baten lehen entregatzat har daiteke oraingo hau, beraz, eta halaxe har dadin nahi luke egileak.

Azken hitzik esateko asmorik gabe dator liburua. Euskal kulturaren azterketa kolektiboan ekinaldi bat nahi luke izan.

Esperientzia berri bat bezala bizi izan dut liburu hau. Nik dakidanez, euskal idazkulturari soziologiazko ikuspegia honen zuzenki egokitzen ez da inor saiatu, Ibon Sarasola aparte uzten badugu. Bazuen alde horretatik interesik, posibilitatea frogatzeak. Aitortu behar dut ezagutzapen enpirikoz ezagutzen nuen errealitatea, sistematikotasun eta arrazoinezkotasun batez estudiatzeak ematen duela, bai, ezagutzapen jakingarririk franko.

Esperientziaren berritasunari begira, bada besterik ere: metodologiaren teoriazko koadroak eta teknik aztergailu hau ez dira kultur minorien problemetarako pentsatuak izan. Sortu, ezaguna denez, kultura hazien idaz-fenomenoa estudiatzeko sortu dira metodologia eta teknika hauk. Aldez aurretik ezin zitekeen, horregatik, baliotasuna erabaki. Teoriazko markoaren puntu bat edo beste aldatu behar izan

dut, gure errealitatea estudiatu ahal izateko. Nago, desegokitasun problema hori gurea bakarrik ez baino zabalagoa dela: kultur minoria guztiena. Beste aldaketarik ere egin beharko da, baina aldakuntza sistematikotara jo aurretik, gainerontzeko kultur minorien liburugintzaren ikerketak eskuratu behar genituzke.

LIBURUAREN HISTORIA

Liburuak badu bere historiatxoa. Liburu honen oinarria, Pariseko Institut Catholique-ko IES (Institut d'Etudes Sociales) delakoan, 1975ean, Soziologiako Lizentziatu titulua ateratzeko frantsesez egina da. Lan haren ondoan, oraingo hau biziki zabalagoa da, birmoldatua, eta errazago emana, irakurlearen onerako, azterketa tankerarik gabe ematen saiatu bait naiz.

Erdaraz parte bat eman badugu, argitaralketaren eskariengatik izan da. Euskal idazleak zein kondiziotan lan egiten duen, euskaraz ez dakienak ere ikas dezan, liburua erdaraz ematea komeni zela, adiskide mordoxka batek esana zuen, originalea irakurriz. Gauza bera pentsatu zuen Luis Iriondok, eta Lankide Aurrezkiaren urteko liburu gisa ateratzeko proposamena egin zidan. Orduan bai erdara beharrezko zela.

Euskara-erdara erabiltzeko hautatu dugun formula ez dakit ganorazkoena denentz. Horrela, bi irakurketa ematen dizkiogu liburuari. Bata, irakurketa jarraitua, euskal textua, hau bait da liburuaren haria eta funtsa. Soziologi azterketa oso-osorik euskaraz ematen da. Bigarren publiko bati ere begiratzen dio liburuak: Euskara irakurtzen ez duenari, baina euskal gauzetaz arduratuari. Textu honen xedea, informatiboa da. Kultur gaietaz berri zenbait ematen da, laburpen gisa.

LIBURUAREN METODOLOGIA

ROBERT ESCARPIT-EN ESKOLA

Liburuaren egituraz eta metodologiaz hiruzpalau esplikazio zor dizkiot irakurleari.

Parte diferenteak ditu liburuak, erdarazko orriak aparte utzirik ere, eta bakoitza dagokion metodo eta azterbidearekin dator. Hauk jarriko nituzke: Idazleriaren azterketa orokorra, liburugintzaren estatistik lana eta kalitatezko analisia, eta galde-zerrenda bidez egindako inkestaren interpretaketa. Orohar, eta arazoa ikusera desberdinetatik begiratuz, euskal idazlearen aurpegia ezagunago egingo al zaigu! Zeren eta ezagutu, ez bait dugu ezagutzen euskal idazlea. Euskal idazleak ezagutu ditzakegu, gehienik ere. Jeneralean, idazle bat edo beste, zahar folkloristaren bat edo euskara traketsa duen gazteren bat ezagutzen dugu, eta horien tamainara neurtu ohi ditugu denak. Ez dakigu, baina, euskal idazlea nondik datorren, zaharra ala gaztea den, estudioduna denentz, ezkerrean ala eskuinean dagoen, elkarlana maite duen ala ez... Gizarte-multzo edo talde soziologiko honen berri eman nahi dugu, ikuspide askotatik abiaturik.

Liburu honetan zehar ILTAMeko Robert Escarpit buruzagiaren jarraitzaile bezala lan egin nahi izan dut. ILTAM, zera da: «Institut de Littérature et Techniques Artistiques de Masse», Bordaleko Unibertsitatekoa. Literaturari eta liburuari buruz ikuspegi askotariko azterketak egin ohi dituzte Bordaleko hauek.

Robert Escarpit da hauen denen artean ezagunena, eta gidari ere bada. Honekin harremanetan nago. Literaturaren soziologoen artean ezagunenetakoa da. Honen bidea, «bide enpirikoa» *(voie empirique)* deitzen du Zalamansky jaunak. Literatur soziologiaren gaurko azterketen bi direkzio bereizten ditu honek: bata, Lukacs-en dizipulu Lucien Goldmann-en araberako estrukturalismo genetikoaren bidea. Eta, Robert Escarpit-ek bereziki erabiltzen duena, bestea. Honela zertzen du Zalamanskyk [1] metodologia hau:

> *Literaturaren soziologia, hemen, obrarena baino gehiago literatur gertakariaren estudioa da. Batik bat fenomeno sozial eta ekonomiko bezala eman nahi du literaturaren berri, horretarako soziologiaren metodo berezietan oin harturik —inkestak, estatistikak... Idazleen jatorria, adina, diru-iturriak— estudiatzen ditu; lauki eta xifren bidez, liburuen produkzioa, banaketa, arrakasta, kontsumoa aztertzen ditu.* [2]

ZEINTZUK DIRA IDAZLE?

Irakurleak azterketa honen goibea neur dezan, zera agertu nahi nioke: lehenengo, euskal idazleria nola osatu den; eta bigarren, inkesta nola eraman den aurrera.

Euskal idazleria mugatu edo determinatu beharra zegoen, lanean hasteko. Ez da erraza. Zeren eta nor da idazle? Galdera korapilotsua. Definizio ekonomikoa, botere publikoek erabiltzen dutena, onartu behar al da? Alegia, liburua publikatzetik gutienez % 50a hartzen duena dateke idazle. Gure kasuan inor ez, eta Frantzian bertan ere, André Gouillon-ek [3] dakarrenez, 400 besterik ez; (40.000, aldiz, autore-eskubideak noizbehinka kobratuz ari dira).

Beste erizpideren bat aukeratu behar ote da, beraz? Baina zein? Liburu bat idaztea aski al da? Kriterio hori mekanikoa da, diote batzuk. Artikulu mordoxka bat idazteak balio al du? Baina ez al da hori erizpide kantitatibo hutsa? Eta, gainera, kazetaria idazlearen definizioan sar al daiteke? Bestalde, liburu bat irakurria denez da liburu, dio Sartrek. Horrela baldin bada, irakurlearen eritzi balioztatzaile eta kalifikatzailea ez al da kontutan ukan behar? Hona, bada, desordenuan, zenbait eritzi bata bestearekin kontrastaturik, problema, konponterraza ez beste guztia dela erakusteko.

Historiaren urruntasunaren abantaila ukan bagenu, lan erdi. Baina gure estudio-gai den idazlegoa, oraingoa da, gaurkoa. Denboraren perspektibarik, denboraren joanik ez dugu gure alde lana errazteko. Ados gaude Villasanterekin [4]: *«Urruntasunak soilki eman ohi du obra baten goibea neurtzeko behar den perspektiva»*. Bat gatoz R. Escarpit-ekin ere: *«l'image d'une population d'écrivains littérairement significative ne peut être obtenue qu'avec un certain recul» (historique)* [5].

Bai, hala da. Baina, denboraren isuria posible ez denean, nola erabaki idazletasuna? Escarpit-ek berak[6] proposatzen dituen prozedurak eta emandako aholkuak egokitu ditut euskal kulturaren kasura. Hona, ba, nola erabaki ditudan gaurko idazlegoaren hedadura eta muga:

1) Soziologiazko oinarririk ahalik eta hedatuena ematearren, Joan San Martinen katalogo bio-bibliografikoa[7] erabili dut lehenik. 400 idazle eta gehiago daude horko zerrendan.

2) J. San Martin-en liburuan agertzen den idazle piloa bi zerrenda bereziren galbahean pasatzen dut. Beste bi lista hauk xede eta joera diferenterekin eginak dira. Bakoitzak 60 idazle inguruko idazle-zerrenda bat proposatzen du. *Hegatsez*[8] liburuan, 1971ean aterean, gaur-gaurko idazlerik hoberentxoenen lanak biltzen dira. *Euskal Literaturaren Historia*[9] liburuan, 1971ean aterean, Ibon Sarasolak kalitatearen aldetik errepresentatibo diren bere ustezko autoreak ematen ditu. 150 idazle inguru gelditu dira.

3) Hirugarren momentu batetan, gero, hautaketa honetatik ateratako zerrendak hiru kritikalariri bidali dizkiet, Joxe Azurmendi, Ibon Sarasola eta Joan San Martin jaunei: hauk bait dira, nere ustetan, gaurko literatura hobekien ezagutu eta aztertu ohi dutenak. Hauek emaniko izenak ere zerrendara pasa dira.

4) Azkenik, nere aldetik, izen bat edo beste sartu dut, hala nola M. Etxeberria, kontsulta egin ondoren agertua bait zen euskal letretara. Aitortzen dut, bestalde, beste batzu ere agertu beharko luketela zerrenda hori gaur egingo balitz, Paulo Agirrebaltzategi eta Manolo Pagola esaterako. (Eta orduan aukeraturiko batzu kendu egin beharko lirateke gaur, gutiegi idatzi bait dute; A. Santamaria eta J. M. Zumalabe esaterako).

Bestalde, gaurkotasunaren mugarriak ere aski garbiak dira. Ia idazle denak bizi dira. Hamar bat dira hilik, baina 1960az gero desagertuak (R. Arregi, Orixe, S. Mitxelena...) edo lehentxeago hilak izanik ere haien obrak 1950az gero argitara emanak izan dira.

Erraz konprenitzen da zergatik jokatu dudan honela, azken zerrenda erabakitzeko.

Ni neu ez naiz literatur kritikoa. Eta banintz ere, gaitz erdi, bide horixe hartuko nuke, sujetibismoan ez erortzearren.

Bat idazle izateko, idazlana bai, baina gehiago ere behar da: idazletzat joa, haintzat hartua izatea. Idazletzat kontsideratua, ezagutua izatea, idazkintza gizarte-fenomenoa denez gero. Idazle bezala, gizarte-prestigioa, ezaugarritasuna, gaurkotasuna. Kalitatea, idazleek eta kritikoek idazletzat ikusia izatea. Hori denori kontutan eduki dut.

Erizpen hauekin ezin geldi nintekeen Joan San Martinen zerrendarekin bakarrik, maximalista iruditzen zitzaidalako. Berak ere badio,

gainera, 400 horietatik *benetako idazle*, 150 bat inguru diratekeela. Kriterio kalitatibo serio bat ezarri nahi izan dut *Hegatsez* eta *Euskal Literaturaren Historia* liburuen zerrendekin eta literatur-aztertzaileen izenekin Joan San Martinena ebakiz.

Erabakirik gelditzen den gaurko euskal idazleen kopurua, 155 idazlek osatua da.

INKESTAREN GORABEHERAK

Duela zenbait denbora (74-09-10) galde-zerrenda bat bidali nien euskal idazleei. (Ikus orrialdea) Bi hilabete beranduago, atzera (74-11-23). Eta berrikitan (76-08-18) lehen erantzun zutenei «Inkesta txikimist» bat egin diet arazo batzutaz gaurkotasuna gordetzearren. Inkesta denei bidaltzerik ez nuen izan: Hamairu hilak eta hamarren baten helbidea eskuratzerik izan ez nuelako. Denetara 143 idazleri bidali zaie inkesta. Horietatik 83k (% 62) erantzun diote nolabait bederen inkesta bidalketari. 51 idazleren berririk ez dugu ukan. Liburuan, hemen inkestako erantzunak aipatzen direlarik, denbora osoan, 61 erantzun dira aztertuak eta erabiliak, eta horien arabera eginak portzentaiak.

Inkestaren beraren luzera eta sakontasuna eta postaz egina zela kontutan harturik alde batetik, eta inkestei erantzuteko gizarte-giro honetako ohiturarik eta entrenamendurik eza ezaguturik, harritzekoa da erantzunen ugaritasuna. Sakon eta arretaz erantzun dute, gainera. Bestalde, alde eta ertz guztietakoak daude presente. «Zaharrak» pittin bat guttixeago akaso? Baliteke, puntu batzutan erantzundakotik atera daitekeen irudia idazle langileriarena izatea, idazle izena duen zenbait alferturik edo «literatur erretiroan» bait dago.

ESKERRAK EMATEN

Eskerrak ematera pasatzen naiz orain. Liburu honek aldi eta alderdi ugari ditu; orohar, hilabete luzetako lana da; eta beti, eskatu dudan bakoitzean, aurkitu dut laguntzarik franko. Pozik aitortzen dut: jende askorekin nago zorretan. Zorrok nolabait kitatzeko asmotan, noan zenbaiten lanak aipatzera.

Bidalitako galde-zerrendari erantzun zioten idazleei eskerrak emanez hasiko naiz, haiei esker izan bait da posible, funtsean, lan hau. Jendeak argazkietarako ere erakutsi duen prestutasuna eskertzekoa da, orobat.

Nere kontsultei jaramon eginez laguntza eskaini didatenek ere nere esker ona merezi dute, horixe baietz, zenbaitetan ordu asko sartu behar izan bait dute lanean: Piarres Lafittek, Santi Onaindiak, Nikolas Alzolak eta, bereziki, Joan San Martinek. Hainbeste eta hainbeste kontsulta egin dizkiot, izan ere, Joanitori, eta denetan eskaini bait dit behar nuen argitasuna. (Bidenabar, liburuan parte hartu

duten laguntzailerik gazteenak ere aipatu nahi nituzke, Unai eta Oier Joanitoren semeak alegia, hauek ere egin dute eta ikastoletako liburuen fitxa zenbait).

JAKIN talde osoarekin ere zorretan nago, neurgaitza izan bait da denen laguntza: kopiaketa lanetan, zerrendak egiten, zuzenketak eta gainontzeko bulego lanetan. Eskerrak batez ere Mila eta Pili Larrea ahizpei, Manolo Pagolari, Jose Antonio Adurizi, Pello Huiziri, Jose Azurmendiri. Lan maila honetan, laguntzarik handiena eskaini didan Arantxa Larreari nere eskerrik beroena agertu nahi nioke, lan gaitzaren ordain eskasez bada ere, liburuaren atalburu honexetatik.

Liburu hau honelakoa izan dadin egin dutenen artean, ez dute lekurik ttikiena merezi Luis Iriondo eta Egiguren anaiek, eta hauen ondoan Juan Luis Epeldek. Liburuan jarri duten ilusioa eta artelana ez da aisa ordaintzekoa. Hauei zor zaie liburuaren dotoretasuna.

Eta azkenik —azkenak bait dira lehenak—, liburuaren taxuketan parte hain handia hartu duen Joseba Intxaustiren lana goraipatu behar dut. Liburuko partaiderik behinena bera izan dut. Liburu honen oraingo egitura, parte on batetan, berak asmatu du. Erdarazkoaren eskema eta erdal textúaren zati on bat honenak dira. Liburua berea balu bezalako ilusioaz saiatu dela esaten badut, ez al dago dena esanik?

IDAZLEAREN JATORBURUAK

IDAZLEAREN JATORBURUAK

IDAZLEA HISTORIAN

Bai idazlea eta bai idazlearen lana egoki uler daitezen, era batera edo bestera, denboraren koordenadak aplikatu ohi dira. Edozein gizarte-multzorekin egin ohi dena, bestalde. Bistan da ikusera honek idazlearekiko mitoa ahalgabetu egiten duela kolpe batez. Mundutik at, goi-arnasaz (?) elikaturik, gizarte-arau guztien hausle onartu hori ez dugu ezagutzen. Eta egonda ere, soziologiak baluke hor ere zer argiturik.

Idazlea historian aztertu ohi denean, bi arazo mota erabiltzen dira batez ere: bata idazlearen adinari lotua; eta bestea, idazleak historian eta historiak harengan duen eragina.

ADIN-PIRAMIDEA ETA TALDEAK


Idazleen adin-piramideak begiratuz, gauza bat ohar daiteke berehalakoan: ez dago eredu bat, tankera jakin bat, jenderiaren piramidetan dagoen bezalako «kanpai-forma», esaterako. Idazleen piramidea estutuz-zabalduz, mehetuz-luzatuz, osatzen da. Baina forma hori behin eta berriz errepikatu gabe.


Liburu honetako urte-mugaketan, mende honetako adin-piramideak egin nahi izan ditut, batetik bestera hogei urteko aldea utziz, hots, hazaldi berri bat plazaratzeko aukera. Garaiko autore biziekin soilik osaturik daude irudiok.

Ez dut hemen piramideak oro aztertzeko astirik, ez adorerik. Azkenekoaz ariko naiz, horixe bait da gure lanari artez dagokiona.

Lehen begi kolpez, hiru adin-tarte nabarmentzen dira hor, denen gainetik: 60-65, 40-45, eta 25-35, arin esateko, batetik bestera ia beti hogei urteko aldea gordeaz.

ADIN - PIRAMIDEAK
PIRAMIDES DE EDADES





Bistan da: euskal idazleria gaztea da. Izan ere, % 33ak berrogei urtetik behera du. Datu edo eman honen esankizunaz jabetzen ez denak, gogora beza ez dela inor idazle jaiotzen, eta, ikerketek erakutsi bide dutenez, idazlearen idazlanerako edaderik egokiena berrogei urte ingurukoa omen da.

Ikustekoa da, baita, 35-40 urte-tarte horietakoen kopuru eskasa. Zergatik? Beharbada, 1936ko gerrak sorturiko kondizioengatik gainerakoei baino zailago gertatu zaielako idazten hastea.

Gure ikerketari dagokion irudia, 1974ean urtemugatua da. Piramide honek agerian jartzen dituen hazaldi edo talde batzuren aipamena egin dezagun orain.

Urte honetan, 1974ean, gerra aurreko idazle asko bizi da oraindik. Belaunaldi hartako izar handi batzu itzali badira ere (Orixe, Jautarkol, Dassance) eta gainerakoek 70 urtetik gora ukan arren, lanean dihardute, hala nola, J. M. Barandiaran, J. Azpeitia, M. Lekuona, N. Etxaniz, Zeleta, A. Labayen, A. Irigarai, E. Salaberri, M. Ziarsolo.

Gerra aurrean idazle gazte edo hasiberri zirenen, eta gerra osteko lehen literatur ekitaldiko idazkintza gehienbat gidatu dutenen belaunaldia dator hurrengo. Izen ezagun asko hemen: L. Akesolo, F. Artola, B. Aurre-Apraiz, Basarri, I. Berriatua, E. Erkiaga, P. Bordazarre, J. M. Etxaburu, Gaztelu, J. A. Goiria, A. Ibinagabeitia, T. Monzon, P. Muxika, S. Onaindia, P. Narbaiz, J. Oñatibia, Uxola, J. Zaitegi, A. Zatarain, A. Zubikaray, A. Zugasti.

Gerra osteko idazle hazaldia hasten da gero, besteak baino ttikiagoa numeroz. 50-60 urte dituzte 1974ean. Hauetako

---

EL EUSKERA, LA LENGUA DE EUSKAL HERRIA

LOS VASCOS Y SU LENGUA, EL EUSKERA

El polígrafo navarro Arturo CAMPION escribió las siguientes palabras en su prólogo a la **Gramática de los cuatro dialectos literarios de la Lengua Euskara** (1884):

Hablada la lengua euskara por una raza de origen desconocido, de filiación ignorada, a la que los más antiguos documentos nos presentan como propietaria de la región que hoy ocupa, por lo menos, y que se ha encontrado en varias ocasiones frente a frente de otros pueblos que representan gran papel en la historia, como son los celtas, latinos, germanos y árabes, siempre combatiendo por la independencia, y ejerciendo, en ocasiones, decisiva influencia en los destinos de España y Francia, parece inútil señalar el aliciente que el conocimiento del euskara presenta. (...). Para nosotros el euskara es algo, mucho más que un instrumento de investigaciones científicas; es la lengua de nuestros padres (...). Es un testimonio vivo y fehaciente de nuestra jamás domada independencia nacional; y es elemento que tiende a diferenciarnos, a dotarnos de fisonomía propia, y por lo tanto, a crear obstáculos a nuestra completa asimilación, desde hace tanto tiempo perseguida y puesta en práctica por tan arteros medios.

Campión escribía estas líneas herido por el despojo foral de 1876 e ilustrado

asko eta asko eredutzat eta eragiletzat hartuak izan dira, eta dira: E. Agirretxe, Iratzeder, J. Etxaide, J. A. Garate, X. Gereño, J. Harischelhar, J. Kerexeta, F. Krutwig, P. Larzabal, J. A. Loidi, L. Mitxelena, S. Mitxelena, J. San Martin, Martin Ugalde, L. Villasante, P. Xarriton.

Laugarren lekuan ikusiko nituzke, gaur 35 urtetatik 50era dituztenak. Gerrako hazaldiaren eta gazteagoaren artean zubi bezala dira hauk. Berrikuntzaren lehen eragileak dira hauetariko asko. Joxe Azurmendik hauei buruz dioenez[1]: «*Gerra ondoko hutsunean sortuak dira; hots, ez dira literaturara mogimendu literario heldu baten barruan jaioak*». (Interesgarri da, hildo berean, Orixek 66 urte zituelarik gaurko idazle ezagunenek zenbat zituzten ohartzea, Azurmendi berak egindako karkuluetan[2]. Garai honetako idazle zenbait oso ezagunak dira: P. Altuna, Txillardegi, D. Amundarain, J. M. Aranalde, J. Arenaza, G. Aresti, M. Atxaga, X. Azurmendi, I. Beobide, F. Bilbao, L. Dorronsoro, M. E. Erdozainzi, B. Gandiaga, G. Garate, S. Garmendia,, J. Gaztañaga, I. Laspiur, J. M. Lekuona, A. Orbegozo, D. Peillen, J. M. Satrustegi, A. Zavala. Eta gazteago: J. L. Davant, R. Kanblong, M. Lasa, L. M. Muxika, J. Intxausti, J. Kalzada, F. Mendizabal, E. Osa, J. L. Lizundia...).

Eta azkenik, barnean bereizketarik egiterik badagoen arren, batean hartzen dugu 25-35erako tartea. Hazaldi berria, aurrekoekin hasi eta hementxe loratzen da, fruituak ematen hasten da. Susperraldirik biziena oraintxe du euskal kulturak. Izen ezagun asko hemen ere: R. Arregi, J. Azurmendi, P. Iztueta, J. A. Letamendia, M. Azurmendi-Intxausti, J. M. Torrealday, Mikel Ugalde, J. Apalategi, X. Mendiguren, X. Kintana, D. Landart, Lantziri, L. Haranburu-Altuna, A. Lasa,

---

por los trabajos de Luis Luciano Bonaparte. De la mano de este ilustre vascólogo, el historiador y gramático navarro había comprendido la urgencia de salvar para el futuro la personalidad del pueblo vasco. El euskara significaba la mejor salvaguardia de esa etnia cultural.

Secularmente, cuantos desde el exterior habían asomado al misterio de este pueblo habían dejado constancia de su lengua: un idioma distinto, enigmático y, decían, ininteligible. Los romanos, que llegaron por el Ebro o por las rutas de Aquitania; los visigodos, que atacaban periódicamente desde la Meseta, o los musulmanes, que llevaban a cabo sus razzias contra las inhóspitas tierras del Norte, encontraron siempre un pueblo con una lengua extraña.

Los peregrinos medievales de Santiago se aventuraron a recoger algunos vocabularios del euskera, que hoy nos resultan valiosos instrumentos de investigación. En la Edad Moderna otros viajeros, algunos tan ilustres como Guillermo de Humboldt, observaron atentamente el hecho lingüístico del euskera.

Humboldt fue, en verdad, un observador excepcional. Entre los años 1799 y 1801, estuvo por dos veces en el País Vasco. Político, lingüista y antropólogo, amigo de Goethe, figura como fundador y primer rector de la Universidad de Berlín. Tomó parte en el Congreso de Viena y en 1819 defendió a los demócratas

A. Lertxundi, X. Lete, A. Sagarna, I. Sarasola, R. Saizarbitoria, P. Urkizu, A. Urretabizkaia...

Adinaren arabera soilik ikusirik, unadaz-unada, ez da erraza belaunaldiak eta taldeak ongi mugaturik ematea. Izen ezagun batzu urtealdi batzutan kokaturik presentatzea izan da nere oraingo asmoa. Talde edo ekipo fenomenoa aztertzen hasteko datu zenbait, emaniko zerrenda horietan aski garbi ikusten delakoan nago. Hain zuzen idazle ekipo horien presentziak esplikatzen du irudiko elkarren ondoko luzatze-estutze hori. Idazleen adin-piramide guztietan berdintsu omen da, dio Escarpitek. Eta fenomeno horren esplikazio hau ematen du berak: «*Idazle talde bat idazkintzaren zelaira sartzen denean (taldea adin guztitakoek osatu arren, adin bat izan ohi da dominatzaile), orduan, oharkabe ala oharturik, bokazio berrien plazaratzea blokeatu egiten du epe batetan*»[3]. Urte batzutan idazle asko dagoenean, hutsunea nabari omen da hurrengotan.

Esan bezala, izen ezagun zenbait multzoka eman baino askoz gehiagorik ez dugu egiten agian, belaunaldien aipamen honetan. Jaioturtea soilik ukan dugu kontutan. Bistan da, inor idazle jaiotzen ez denez, belaunaldi baten eraketan, gainerako mediatizazio eta tarteko asko daude eragile. Horregatik ez dira idazleak oro edade berean idazle bilakatzen, gisa denez: adinez halako urtetakoa dena, ekipoz, joeraz sarritan izan ohi da geroagokoa. Gure artean ere bada holakorik. Zenbait idazle, adibidez, A. Zubikaray, Joan San Martin, R. Kanblong, beren adinkideak baino beranduago hasi eta ekin zioten idazteari. Pentsatzen dudanez, eta hipotesi gisa diot, idazle laiko zenbait («Gazte naiz» taldekoak salbu) bakoitzaren historia pertsonala aparte utzirik ere, has-

---

prusianos. Retirado desde entonces de la política, se consagró por entero al estudio de las lenguas. Intuitivo y científico a la vez, es considerado como una de las cumbres de aquella naciente lingüística moderna. Comienzan así sus notas de viaje al País Vasco: *oculto entre las montañas habita las dos laderas de los Pirineos occidentales un pueblo, que ha conservado por una larga serie de siglos su primitiva lengua y, en gran parte también, su antiguo régimen y costumbres, y que según la expresión de un moderno escritor, se ha sustraído, tanto a la mirada del observador, como a la espada del conquistador, el pueblo de los vascos. (...). Desgarrado en dos pedazos muy desiguales y subordinado a naciones poderosas, no han renunciado los vascos, empero, de ningún modo a su propia manera de ser (...) y han conservado siempre la peculiaridad de su carácter nacional.*

Desde hace milenios y antes de que aparecieran o nacieran las lenguas que rodean hoy al euskera, los vascos (= *euskaldunak)* empleaban ya este idioma. El euskera era siempre la lengua que los definía como pueblo y como comunidad cultural; su idioma era un instrumento de identidad colectiva.

El euskera está aún vivo entre los vascos del siglo XX, que aspiran a hacer de él la lengua que los vincule a una tradición milenaria y les abra a un futuro más moderno y auténtico. El euskera es el idioma de Euskal Herria o Euskadi.

tapeneko trabengatik eta inguruko talde-laguntzaren faltagatik, etorri dira horrexegatik idazkintzara besteak baino beranduago.

EZ DA INOR IDAZLE JAIOTZEN

Nork ez daki: ez da nehor idazle amaren sabeletik. Dohainak ez du dena esplikatzen. Lana behar da. *Processus* luzea da idazkintza. Idazle egin egiten da bat. Idazle bilakatzea ez da berez gertatzen, ez eta indar ulergaitz batzuren bidez suertatzen. Ez da kasualitatea adin beretsutan idazle-sorta bat bilatzea, ez eta ekipo gisa antolaturik agertzea. Frogaturik dago idazle bokazioak sortzea, idazle taldeak plazaratzea, gertakarien arabera jazoten dela. Eta gehienetan, politik inguruko gertakariak izan ohi dira. Erresuma aldakuntzak, iraultzak, gerrak, aipatzen ditu Escarpit jaunak. Baina, ekonomiazkoak, kulturalak eta enparauak ezin ditzakegu ahantz.

Euskal idazleria ez dela horretan salbuespen, uste dugu. Eta zergatik izango? Gizarte-fenomenoen eta idazle-sorkuntzaren harremanetaz gehixeago jakin nahiz, bizpahiru puntu azalduko ditut, estudio sakonik egiteko adinako daturik ez dudala aldez aurretik garbi utzirik. Indikazio aski fidagarriak iruditzen zaizkigu, gure asmotarako, jarraiko zehaztasunok.

Hasteko, idazkintzaren hasera galdetu zitzaien inkestako idazleei. Eta haien erantzunak honetara banatzen dira:

Urte-tarteak	*Idazleak %*
1900 - 1920	4
1921 - 1930	12
1931 - 1935	12
1936 - 1940	2
1941 - 1950	7

¿DE DONDE VIENE EL EUSKERA? EL PROBLEMA DE SUS ORIGENES

Los historiadores, del País Vasco o extraños al mismo, percibieron muy tempranamente el valor del euskera como instrumento de excepción para penetrar en la Prehistoria de la Península. Desde que tomaron conciencia de la singularidad histórica de este idioma, han estado, frecuentemente, unidos en los debates el tema de los orígenes del euskera, y el de la procedencia y naturaleza de los primeros pobladores de Iberia.

OPINIONES DE LOS HISTORIADORES

Generalmente, los autores clásicos de la Historia del País hacían remontar sus orígenes hasta hechos y personajes bíblicos. A falta de métodos más depurados de lingüística histórica, los sucesivos historiadores se copian mutuamente o se apoyan en elucubraciones que hoy se nos antojan carentes de rigor. Los datos resultaban inasequibles, y recurrían al testimonio de los autores precedentes, y en última instancia al de la Biblia, a la que se consideraba como una fuente de información para la Historiografía.

Siglo XVI (Zaldibia, Garibay, Poza, Mariana

No nos debe extrañar, pues, que el primer historiador guipuzcoano, el BACHILLER ZALDIBIA (1560), hablara en los siguientes términos: en la Torre de Babel *fueron confundidas las lenguas de una que había en setenta, e idos por el mundo, Túbal, hijo de Jafet, vino a las Españas con sus compañías y lengua que traían y pasó en los montes Pirineos,* [y así] *los vascos y los navarros tenían su lengua, que es la vascongada, que Túbal y sus compañeros trajeron.*

Urte-tarteak	*Idazleak %*
1951 - 1960	32
1961 - 1970	26
1971 - 1974	5

Gauza bat edo beste nabarmen gelditzen da zenbaki hauetan. Agerian dago gerrak sorturiko gerakuntza, % 2 bakarrik bait dira 1936-1940 urte bitartean idazten hasiak, eta gerora ere, 1950era arte, beste % 7 besterik ez.

Berrikuntza, xifrek ageri-agerian uzten dutenez, 1950 urtetik gerokoa da, orduantxe hasia: inkestako % 63 idazle dira 1950 baino geroago idazten hasiak. Honi zera erantsirik, alegia, idazleen % 58a hogeitabat urte orduko hasi dela izkribatzen, bi datu hauekin, frogaturik dago gerra ezagutu ez zuen hazaldiaren sarrera masiboa dela oraingo hau.

ALDAKUNTZAREN GERTAKARIAK

Berrikuntzaren faktore bat horixe da, gerra ez ezagutzea. Gainera, urte horietan, ingurua ere mogitzen hasten da, eta giroa aldatzen. Hona J. Azurmendik nola deskribatzen duen sozio-politikazko aldaketa hau:

> *Gerra ondorena, kanpotiko interbentzioren baten itxaropenez ala bildurrez bizi zen. «Kanpoak» berebiziko inportantzia zuen. Espainia barnea kutxa batetan hertsita bezala zegoen. Ekonomiak ia ez zuen gorakadarik: 1935koean buruko 8068 pesetako, 1953an 8982 pesetako errenta kontatzen da. Kanpo aldera hertsita dago: bere gogoz, bere premiaz, eta kanpotik ezarri zaion blokeoz. Ahal dentxoa egiten da. Zapalketa gogorra. 1951ean huelgak, Donostiako gotzaiak «Egiz» apezen isilpeko agerkaria, debekatzen du. 1952ean USAk eta Espainiak militar itun edo tratua egiten dute, Espainiaren blokeo eta isolazioa, bakartzapena, bukatuz. 1953an Vatikanoarekin Konkordatoa, Ekonomia bizi berritzen hasten da. Eta Euskal Herrira langile erdaldunak uholdeka sartzen dira: 1950 eta 1960 artean, 96.388 langile erdaldun Bizkaiara eta 48.567 Gipuzkoara. Errealidade berriak*

Los autores irán asociando el primer poblamiento peninsular con la primitiva lengua de Iberia. Se plantea, así, el debatido tema de si el vascuence fue también la lengua universal y única de aquellos aborígenes ibéricos, en lo que, después, había de ser España y Portugal. El mondragonés ESTEBAN DE GARIBAY, el primer historiador general de España, escribió así en 1571 (casualmente el año de la publicación del primer libro euskérico en prosa): *La Lengua de Cantabria fue la primera que se habló en España (...) y ella es una de las setenta y dos de la dispersión de las lenguas del mundo, por ser la lengua que con ninguna otra tiene participación.*

Favorecidos por su evidente antigüedad, los apologistas del euskera subrayaron la nobleza del mismo, retrotrayendo sus orígenes hasta la Torre de Babel o el Paraíso Terrenal. EL LICENCIADO POZA (1587), en su **Antigua Lengua de las Españas**, la llama *puramente babilónica*, y es, además, la *maternal y general de España* y la que suplantó en la Península a la hebrea (que era conceptuada como la lengua universal antediluviana): *con la multiplicación de los vascongados que vinieron de Armenia y de los campos de Senaar, fue su lengua poco a poco oprimiendo a la hebrea, hasta quitarle de todo punto el uso y memoria suya.*

La tesis de la universalidad ibérica del euskera se verá perturbada por MORALES y el P. JUAN MARIANA (1591). Este admitía, desde luego, porque *así*

nagusitzen dira. Gobernua gotorki konsolidatzen. Eta abar. Ez naiz luzatuko. Baina, giza legezko iruditzen zait, kanbio soziopolitiko honi garaiz antzemateko begiak izan zituztenek, jokabide kulturaletan ere «kanbio politiko» bat erabakitzeko argitasuna eta kemena izan bazuten, guk hori esker onez baloratzea. Eta inportante iruditzen zait, 1950 aldera hasten den aldakuntza sozio-politikoa, ekonomikoa nahiz kulturala, zinezkotzat hartzea. Gero gerokoak. Euskal kulturgintzak, berak bere buruari opa ez dizkion bezalako baldintzen gainean ala azpian, aritu beharko bait du.[4]

Gertakarien eta literaturgintzaren paralelismoaren arriskuak ezagutzen ditugu. Baina, hemen, ezinbestean, azterketari ez baino aipatze soilari lotuko natzaio. Garai hartako gertakari zenbait gogora ekarriz, ikertzaileren bati ihizia atera nahi liokete zerrenda hauek, eta besteoi eragipen posible hori gogoratu.

Munduan zehar

Giroa sortzeko eta aldakuntza bultzatzeko, kanpoko gertakari zenbaitek izan duen eragin bortitza ukaezina da. Adibidez:

1953 — Stalinen heriotza.
Kruchetchev-en aginte hartzea.

1956 — Sobiet Batasuneko Alderdi Komunistaren XX Kongresoa: pertsonalitate kultuaren kondenapena.

1957 — Merkatu Bateratuaren eta Euratom delakoaren sorrera.
Lehen Sputnik horren bidaltzea.

1959 — Kastroren Habanan sartzea.

1960 — Joan XXIII.a eta Mater et Magistra.
Kontzilio Batikano II.a
Kennedy Estatu Batuetako Lehendakari.

1961 — Pacem in Terris.

1962 — Argeliaren askatasuna.

---

lo sienten y testifican autores muy graves, que Túbal había sido el primer poblador de la Península. Mariana calificaba el euskera de *Lenguaje grosero y bárbaro, y que no recibe elegancia y es muy diferente de los demás.* A esta calificación injuriosa, el historiador jesuíta añade la duda sobre su universalidad y unicidad ibéricas: *la lengua vizcaína no fue la que usaba comúnmente España. No negamos empero haya sido una de las muchas lenguas que en España se usaban antiguamente y tenían: solo pretendemos que no era común a toda ella.*

Siglo XVII (Echave, Moret, Oihenarte)

Los historiadores vasco-iberistas (generalmente, historiadores del País y amantes del euskera) reaccionan vivamente ante esta hipótesis. Para ellos, la nobleza del vascuence se fundamentaba más en aquella antigüedad y universalidad, que en su capacidad expresiva o en la producción literaria.

BALTASAR DE ECHAVE, un zumayano avecindado en Méjico, publicó en 1607, en aquella ciudad azteca, unos **Discursos de la Antigüedad de la Lengua Cántabra,** cuyo subtítulo dice así: *Introdúcese la misma lengua, en forma una Matrona venerable y anciana, que se quexa, de que siendo ella la primera que se habló en España, y general en toda ella, la ayan olvidado sus naturales, y admitido otras estrangeras.* En Echave quedan corroboradas con nuevas etimologías y datos, pretendidamente históricos, las tesis de Garibay. Es de notar cómo alude a Ma-

Euskal politikan

Euskal idazleria hurbilagotik ikutzen duen jazoera xit inportanterik izan da Euskal Herrian ere. Adibidez:

1957 — Kristau progresista zenbaitek FLP (Frente de Liberación Popular) sortzen du.

1959 — ETA (Euskadi ta Askatasuna) olde iraultzailea sortzen da.

1960 — 339 apezen Gutuna, Euskal Herriaren kultur zanpaketa salatuz, egoera Giza-Eskubideen kontrakotzat joaz.
Jose Antonio Agirre, Euskadiko Gobernuaren Lehendakariaren heriotza.
1960az gero indar politiko eta sindikal zenbaiten azkartzea, indartzea: EGI, ELA.

1963 — Enbata, olde abertzale eta europear federalistaren jaiotza Ipar Euskal Herrian.

Euskal kulturan

Kultur mundua ere mogitzen hasia da, eta bada berritasunik. Adibidez:

1949 — S. Mitxelenaren *Arantzazu, Euskal poema,* gerra ondoko hego aldeko lehen liburua.

1950 — *Euzko Gogoa* sortzen da Guatemalan.
Euskaldunak Orixeren poema argitaratzen da.

1952 — *Kulixka Sorta* sortzen du Itxaropenak.

1953 — *Anaitasuna* sortzen du I. Berriatuak.

1954 — *Otoizlari* aldizkaria ateratzen da Belocken.
Axularren *Gero* liburuaren 4. edizioa.
Egan, orain euskara hutsean.
Milla Euskal Olerki Eder liburua ateratzen du Onaindiak.

1955 — Etxaideren *Joanak Joan.*
Loidiren *Amabost Egun Urgain'en.*

---

riana, y la explicación política que da Echave a la falta, en sus días, de una abundante literatura euskérica: *Por donde podéis y debéis hechar de ver, que no soy tan bárbara y de despreciar como algunos escriptores me hazen* [...], *y si no hay escrituras, no es porque no debo y puedo ser escripta y nombrada por el mundo,* [...] *sino porque* [...] *me procuraron desterrar del mundo los Emperadores Romanos.*

Los grandes historiadores vascos del siglo XVII como OIHENART (1638) y el P. MORET (1684), en los que ya despunta un nuevo sentido crítico, continúan con la defensa del vasco-iberismo. MORET afirma de nuevo la universalidad ibérica del euskera; el mismo OIHENART, crítico mucho más cauto, que rechazó por ejemplo la identificación de vascos y cántabros, escribió a propósito de la primitiva extensión territorial del euskera: *creo que esta fue la lengua de todos los montañeses, que vivian en el Norte de España, es decir, de los Vascos, Várdulos, Autrigones, Caristos, Astures, Cántabros, Gallegos y Lusitanos.* Y considera que las lenguas de los demás pueblos primitivos de la Península no eran sino dialectos afines al vascuence. En todo caso, en el contexto de las tesis de estos historiadores, el euskera es la lengua de los primeros pobladores que aparecen asociados a Túbal y su hijo Ibero.

1956 — *Euskera,* Euskaltzaindiaren aldizkaria, berriz.
Jakin aldizkaria sortzen da Arantzazun.
D. Agirreren *Garoa,* Kirikiñoren *Abarrak* eta J. A. Mogelen *Peru Abarka* bir-argitaratzen dira.

1957 — Txillardegiren *Leturiaren Egunkari ezkutua.*
Lizardiren *Biotz begietan* bir-argitaratzen da.

1959 — *Olerti* aldizkaria ateratzen du S. Onaindiak.

1960 — Txillardegiren *Peru Leartzako.*
L. Mitxelenaren *Historia de la Literatura Vasca.*
Goiz Argi sortzen da.

1961 — *Cinsa* eta *Auspoa* editorialak jaiotzen dira.
Luis Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca* ateratzen da.

1962 — Sarrailh de Yarzaren *Vasconia.*

1963 — *Goiztiri* sortzen da Ipar Euskal Herrian.
Zeruko Argia astekari bilakatzen da.

1964 — *Jaunaren Deia* aldizkaria publikatzen hasten da.
Arestiren *Harri eta Herri.*
Baionako Batasuna.

IDAZLEEN JATORRI SOZIO-PROFESIONALA ETA EGOITZA

Idazlea gizartekide denez, honen ezaugarri batzu markatu nahi genituzke. Nola jokatzen duen gizarte horren barruan, gero ikusiko dugu hori luzaz. Baina idazlea ez bait da zerutik etorria, eta marfilezko gazteluan ere ez denez bizi, aurrekoan bezalatsu, hemen ere, bi arazo modu aztertu ohi dira. Zein da idazlearen «milieu d'incubation» delako hori, hau

---

Siglos XVIII-XIX (Larramendi, Astarloa, Humboldt)

- Guziz bere buruari begira, itsuturik eta larriturik, eta mundu modernuan sarpide bila amorraturik dabilen Euskal Herri batena: gazteria hutsezko herri batena.
- Borrokaren aurpegia, planifikaziorik ezarena, aurrera egin nahi duen herriarena.
- Asko argitaratzen da eta oraindik hutsune izugarriak daude, kultura atzeratu bat garela baina minoria oso saiatu bat dugula adierazten du.
- Ideologiazko *seta*rena, talde bakoitza bere setatasunean. Idazleen aldetik arituz, hain setati, anarkian erortzera arte, eta honegatik kulturaz eta politika kulturaz hornitu gabeko herria. Heziketa falta nabarmena.
- Irudi helduka, aski anarkikoa, amateurra, realismo handirik gabea. Halere, hoberantz doan ustekoa naiz eta 15 urtetan aurrerakada nabaria egin delakoan nago. Literatur sorkuntza makal dago.
- Orain hasi dela hilargitik lurrera jeisten.

Y en el número de vascoparlantes, según los cálculos de Irízar en su estudio lingüístico-demográfico de *Los dialectos y variedades de la lengua vasca* (San Sebastián, 1973), llega también en cabeza con más de la mitad del total, esto es 51,89 %.

También a otros niveles Guipúzcoa supera al resto. La mayoría de las ikastolas han florecido en Guipúzcoa, que posee en la actualidad (1975) 80 ikastolas con una población estudiantil del orden de los 20.000.

Las editoriales vascas, como *Jakin, Kriselu, Itxaropena, Etor, Gero,* aunque no siempre tengan su sede social en Guipúzcoa, es en ella donde ejercen la mayor parte de su actividad.

No hay la menor duda, a juzgar por los datos de venta de las mismas editoriales, que la mayoría de los lectores está en Guipúzcoa. *Gero* reparte el 50 % de su producción en esta provincia y 25 % en Vizcaya. Las cifras son mayores para *Jakin:* 66 % en Guipúzcoa y 20 % en Vizcaya. *Itxaropena,* 80 % en Guipúzcoa y 10 % en Vizcaya; y *Kriselu,* 60 % en Guipúzcoa y 35 % en Vizcaya.

Valoración del hecho por los encuestados

En la encuesta dirigida a los escritores hemos querido indagar las razones de la primacía de Guipúzcoa en el número de escritores. Las respuestas transcritas en el cuerpo de la obra podrían resumirse así:

— El 62 % de ellos precisa que la causa es cultural.

- Egiarena, alegia, bere oreka eta zentrua arras galduak dituen herri hetsi batena.
- Askatasunaren zain paradisoaren zain bezala bizi den herri bat, horrela errealitatea bere osotasunean eta mundu-gizartea bere zabaltasunean ulertzeko gaitasuna nahiko galdurik.
- Herri subdesarroilatu batena eta dudarik gabe kolonizaturik dagoen herri batena.
- Asmatzen den herri zapaldu batena.
- Bere iraun-beharrean eta izan-beharraren kezkaz eta neurosisaz beterik dagoen herriarena.
  Umorearen zentzu guti duen herriarena.
- Nortasun gutxiko eta leen baiño gutxiagoko erri batena...
- Ekonomi baldintzek eta politika egoerak, eta geure historiak, ametitzen duten irudia. Irudi hori pobrea da, osotasunik gabea, hala ere geroz eta aberatsagoa, kontraesan handiz betea, gaztea, eta zorionez, gaztetuaz datorrena. Eta halaxe, laster heldutasun batera hel daitekeena.
- Euskal Unibertsitaterik ez dugunaren ondorio larriaren irudia. Kultura ez bide gara *eraikitzen* ari, baizik zenbait lan *barreiaturik* egiten.

HERRI HITSAREN IRUDIA

Irakurleak esan beharko du, idazleak liburuan irakurtzen duen euskal gizartearen irudia zuzena den ala ez. Ikuspegi honetan ez dago, ez, Manterola eta Astarloaren tankerako goratzarrerik: «munduan ez da, segur nago / au baino erri bat obia» (José Manterola). Ez du inork uste euskal liburuak Paradisurik pintatzen duenik.

Eta ez da harritzekoa, ikusirik Jose Azurmendirekin idazlegoaren parterik langileena, gazteena, zein kondiziotan,

---

— El 30 % aboga por las razones socio-económicas.

— El 27 % explica la situación por razones geográficas.

Las razones culturales expuestas por los escritores cubren el abanico que va desde las razones lingüísticas hasta las institucionales. Se reconoce en el guipuzcoano el dialecto más prestigioso, el más preparado como lengua de cultura, el más cercano a la unificación, así como el más practicado, sea como lengua escrita sea también como lengua hablada.

Entre las razones socio-económicas, se cuenta en primer lugar la estructura socio-económica de Guipúzcoa y su abundante pequeña burguesía euskaldun y su conocimiento del euskera, lo que sucede de muy distinta manera en Vizcaya, quizás por la influencia de Bilbao y su clase burguesa.

Un factor de gran importancia es que la capital, San Sebastián, se mantiene «euskaldun», mientras el proceso de desvasquización de Bilbao, Gasteiz, Irunea y Baiona ha sido más rápido.

Guipúzcoa se halla también más defendida por su situación geográfica, ya que se encuentra protegida por las otras provincias vascas. Las otras provincias le servirían de «parachoques».

zein girotan hasi den lanean[20]. Jose Azurmendik poesia aztertzen du; baina, nere ustetan behintzat, haren eritziek gainerako literatur motak ere ukitzen dituzte. Hazaldi honen bereizgarri batzu? Hazaldi hau, Jose Azurmendirentzat, kritika eginez hasi zen edo, hobeki, *autokritika* eginez, horrela ondasun asko deseginik: progresismoa eta ideologia zenbaiten kritika. Kritizismoa eta antikritizismoa, beraz. Bigarrenez, neke eta etsipen giroa: ez da irtenbiderik inon ikusten. Eta azkenik, gehienen mundu ikuspide eta bizitz sentiera gehienen tankera pesimista:

> *Txillardegiren filosofia, historiaren begiespena, pesimista da, nire ustez. Lasaren, Urretabizkaiaren, poesia, melankoliaz eta tristeziaz beteta dago. X. Azurmendiren poesiako gizona hautsita dago. Joseba Zulaikaren Adan, Saizarbitoriaren nobelako protagonista anonimoa bezain eskeptiko da... Lekuonaren poesian gizona gizarte arazoetatik aparte dabil, eta mundu ikuspide optimistak baditu ere, zail da haiek sentiera sozial optimista bihurtzea.*
>
> *Giro iluna. Fatalista samarra. Euskal poesia, beti ere eta gaur ere, tristurak, oinazeak, urrun minak, arratsak, nahigabeak, negarrak, betetzen dute, ilunbe, indibidual nahiz sozialek... Esperantza eta amets errazegitan sinestea zail bihurtu da. Esku biekin ilargia harrapa genezakeela uste genuen. Tabu guztiak apurtu, sexu arteko diferentziak xahutu, klase gabeko gizartea eraiki, langileak nagusi jarri, langileon kultura berezia eta artea asmatu, aberria askatu eta dena batera. Egiten genuen gauzatxo bakoitzak mundu guziaren eta problema guzien konpoketa osoa izan behar zuen. Gero, urrats bat, urrats bat besterik ez dela, ikasi beharra egon da. Eta urratsak bana-bana eta astiro-astiro bakarrik ematen direla. Etsipena, hortakoz, errealismoaren ataurrea izan liteke. Ez dakit hala den, izan. Halaxe izatea nahi nuke eta nahiak hala dela pentsarazten dit, agian...*[21]

BIZI NAHI DUEN HERRIAREN IRUDIA

Baina herriaren irudi hits, ilun eta hautsi honetan ez da agortzen dena. Ez eta hurrik eman ere. Izan ere Sisiforen mitoak ez baino Prometeorenak irudikatzen du hobekien Eus-

---

El que geográfica y dialectalmente sea el centro, es un factor digno de atención. Podría ello corresponder al fenómeno conocido en la sociología de la literatura como la mirada al centro, como la «fuite au centre» , el «brain-drain». El «brain-drain» consiste en el conocido fenómeno de que los talentos van de las colonias a la metrópoli, de la periferia al centro, donde existe una vida cultural más intensa, donde el escritor se encuentra más arropado, más protegido, ya que existe un público lector más amplio, y la vida lingüística es más dinámica, etc. ¿Puede acaso esto explicar el fenómeno que estamos estudiando?

ORIGENES SOCIO-CULTURALES

LA FORMACION DEL ESCRITOR VASCO

Origen social modesto

El escritor vasco es de origen modesto. Según los datos de la encuesta en nuestro poder, procede en una gran parte del medio rural (34 %) y del medio obrero (34 %). Otras categorías socio-profesionales, como pueden ser la de los comerciantes y la que engloba las profesiones liberales, no han colaborado más que con el 12 % cada una en la producción de escritores.

La oriundez popular del 68 % no es una situación corriente en las grandes culturas. Ni el medio rural, ni el obrero son considerados como el ambiente más propicio para el nacimiento y desarrollo de vocaciones literarias. Entre nosotros, la causa principal de este estado de cosas parece ser el conocimiento inicial de la lengua, que se da precisamente en estos sectores de la sociedad. Este hecho es sociológicamente muy revelador.

kal Herria. Herri aspertu, nekatu, galdu, etzanaren eritzirik ez da ageri, bat bera ere ez. Ia erantzun guztietan sumatzen da bizitasunaren, edo burrukaren hedadura. % 40k espreski azpimarratzen dute bizi-nahia, dinamikotasuna...

- Askatasun egarriz bizi den Herri baten irudia.
- Berpizten edo haur minetan dagoen herri eta kultura baten irudia. Indar asko, langile guti edo ez nahikoa, baina aurrera ari gerala dudarik ez.
- Birbizi guraz jo ta ke diarduan erriarena.
- ...Zerbait izan nai eta ezin duanarena, ardo izan nai eta txakolin gelditzen denarena, eta bear bada ardo izateko biderik artzen ez dakianarena.
- ...Ideologia berrieri, hiriari eta industriari ohartzen den herri baten irudia. Bere minoriatik atera nahi da eta herri normal baten bizian sartu.
- Arnas-oska, baina bizi-nahiez dagoen herri batena.
- Euskal Herria bizi dela.
- Euskal Herria kezka dela, problematika batean murgildua ari dela, bizi nahia duela.
- Oso herri dinamiko bat, zeren euskaldunok populazioaren % 25a izan arren, beste % 75 erdaldunek bertako liburuak beste argitaratzen baititugu euskaraz.
- Herri prestatua, nahi denagatik, herri zapaldua, falta denagatik; herri zatitua, ikusten denagatik; baina herri bizia, egiten denagatik.

Los Seminarios, centros de iniciación literaria

Una gran parte de estos escritores han pasado luego por el seminario. Como dice uno de ellos, conocido literato: *«nuestra gente del pueblo no ha tenido otra opción como medio cultural que el seminario»*. El seminario y las casas de formación religiosas han sido un semillero de vocaciones de escritores vascos en la postguerra. Mientras que la lengua vasca era proscrita, perseguida en las escuelas, se practicaba en los seminarios su enseñanza, aunque no con excesiva profundización. La generación que ha llegado a la dedicación literaria entre los años 1950-1960 ha tenido su inicio en los seminarios y casas de formación de las Ordenes religiosas, destacando, entre todos, los jóvenes franciscanos con la revista *Jakin*, los pasionistas con *Laiaketan*, los sacramentinos con *Arnas*, los agustinos con *Erein*.

Los estudios del escritor

En el futuro, la Universidad tomará el relevo. Pueden suponer un primer núcleo los numerosos «Euskal Kultur Mintegi» o Seminarios de Cultura Vasca. Ya en la actualidad, el 69,5 % de los escritores han realizado estudios superiores, en su mayor parte universitarios. Ibon Sarasola, en un estudio realizado sobre los escritores vascos actuales, analizando la producción de los años 1972-1973 constata que *«por primera vez en la historia de la literatura vasca, la categoría de los de formación universitaria ha sobrepasado a los dos restantes (formación clerical, más gente de formación de enseñanza media, bachilleres y autodidactas).*

«HERRI NAHI ETA EZINA»

«Izan nahiak ematen dio izatea» Euskal Herriari. Herri zapaldu, zatitu, baina herri bizia, urduria, nahi eta ezinaren larritasunarekin beti lehian, beti burrukan dabilena: «Nahita-ezin» honen gaia maisuki erabili du B. Gandiagak bere liburuan, Txakolinaren irudiaz baliatuz:

> Euskalerria Herri da.
> Herri nahi ta ezina.
> Nahi ta ezin honek ematen dio bizitza Euskalerriari.
> Herri asekabea, mikatza.
> Izan nahi harro hori barik ez dago Euskalerririk.
> Suzko arima ase ezin garratza du Euskalerriak.
> Txakolina ardo da.
> Mikatza da.
> Ardo nahi ta ezina.
> Neke ta ezin hau du bere tasun bereiziena. Heldueza. Ardo asmotako ardo ezina.
> Euskalerriaren mikaztasunak arima erretzen du, txakolinak bere mikaztasunaz ahoa erretzen duen bezala. Ardo pobrea da, ardo nahi lukeena, baina beste ardoen artean ardo ez dena, baina ardo dena halaz ere. Euskalerria Herri da Baskongadas barruan, arima delako, kontzientzia delako, samin delako, urduritasun eraman ezina delako. Euskalerriak ez du bozkariorik ematen: Kixkali egiten du. Izan nahiak ematen dio izatea.[22]

KONKLUSIO ANTZEAN OHAR LABURRAK

— Editoreak kultur militanteak dira, lanbidean eta konpetentzian profesional izan nahi duten militanteak. Gaurko liburu politikarekin, edo, hobeki, politikarik ezarekin (goi antolaketarik ez, subentsio-laguntzarik ez, irakurketa ugaltzearren liburua merke saltzea, eta herriko inguru giroagatik...), argitaldariek apenas duten bizitzerik; malbizi dira, hori da egia. Belaunaldi sakrifikatua da horiena, gerokoen bizimodua posibleztatzen duena.

También por primera vez, la categoría de los de formación clerical pierde la mayoría absoluta, ya que su porcentaje es inferior al 50 %». Así pues, de los escritores cuyas obras aparecieron en 1972-1973 ha pasado un 41,3 % por la Universidad, 33,3 % por el Seminario, y el resto alcanza un total de 25,4 %, según los resultados del mismo estudio.

En los cálculos de la población literaria total, entre el 69 % que ha realizado estudios superiores, la mayoría ha seguido dos direcciones bien determinadas. Vienen en primer lugar, con el 26 %, los estudios que podríamos denominar como «letras», estudiando preferentemente, la Pedagogía, Sicología, Enseñanza, Lingüística, Historia, Derecho. El segundo lugar lo ocupan las ciencias exactas y técnicas, por este orden: Matemática, Tecnología, Medicina. La Filosofía ha sido estudiada por el 11 %. Menos adeptos han alcanzado las ciencias sociales, que alcanzan apenas un 10 %.

El fenómeno de la autodidaxia (incluyendo en este apartado los bachilleres y similares), aparece con un 13 % del total.

La profesión de los escritores

El medio literario del escritor vasco se sitúa en las proximidades de las profesiones liberales. Según los datos parciales de la encuesta, un 45 % largo de escritores se ubicaría en las profesiones liberales, en especial, como médicos, abogados, ingenieros, y sobre todo profesores. Un 31 % (que en la población total

Maila honetan, eragozpenik gogorrenak, oinarri-oinarrian, ekonomiatik datoz, politika kulturala definitzeko orduan. Esaterako, finantziturririk ezak esplikatzen du argitaletxe zenbait elizgizonen eskutan egotea.

— Euskal idazleak zorrotz ikusi du egoera hau. Era berean ikusten du, argitaletxeak programakuntza jarraitu eta planifikatuagoz lanegiten saiatzen direla gero eta gehiago. Editorialak balioztatzeko momentuan, planketari eta programaketari begira dagoena famatu dute gehien.

Ikuspide honetatik abiaturik edizio-etxe baten inguruan kolaborazioan edo elkar lanean lanegiteko prest dagoke, asko eta asko (% 83), edo, nahiago bada, ez du horretarako eragozpenik. Idazle salduak, beraz? Idazle esklabuak? Kopistak? Ez holakorik. Piloa da planketaren barnean askatasuna exijitzen duena («planketa kontzertatuaz» mintzatu gara) eta asko eta asko (% 84) monopolioa (Argitaletxe bakarra) indar guztiez gorrotatzen dutenak.

— Liburuaren problematika osoa arduraz hartzen duen gobernurik, estaturik, edo ministergorik, edo instituziorik, ez dugunez, eta, bestē aldetik kultura imprimatuaren egoera larriagatik, euskal argitaletxe zenbait kultur gune, kultur etxe, bilakatzen ari dira. Hori izan da azken unada honetako joera nagusia.

— Literatur produkzioaren estudioak agerian uzten du euskal kulturaren subdesarroiloa, gure «kultur minoriaren» egiazko egoera. (Eta minoriaz mintzo gara espreski, maioria baten erreferentzian bizi garela adierazteko). Infradesarroiloa ez da eztabaidagarri, produkzioaren egiturako hainbat atal hutsik ikusiz eta literaturaren proporziorik ezaz jabetuz.

---

de escritores actuales pasa al 39 %) se encuentra en las profesiones religiosas.

La comparación de la profesión actual de los escritores con sus respectivos orígenes nos muestra que hay una concentración y polarización hacia una zona media de la escala social, tendencia que es común a otras literaturas, como lo atestigua Robert Escarpit.

Fenómeno también conocido en otras literaturas como característico de la evolución en la profesión de los escritores estos últimos treinta años, es, según R. Barthes, *la llegada masiva de profesores a la literatura.* El caso se confirma entre nosotros. Extraña, en cambio, la ausencia de la mujer en la literatura vasca actual, cuando la mayoría del profesorado de las ikastolas la constituyen las «andereños».

LOS ESCRITORES Y SU BIBLIOTECA

Si intentamos adentrarnos en los gustos y tendencias de los escritores vascos no parece exento de interés el examen detenido de su biblioteca doméstica. «Muéstrame tu biblioteca y te diré quién eres».

La adopción de la biblioteca como indicador cultural de la vida intelectual del escritor no es extensible a todas las áreas culturales. Depende en gran parte de la organización del mercado del libro, de las costumbres de acercamiento al libro, como también del poder adquisitivo de la gente. Pienso que, por ejemplo,

Zer egin? Kalitatean bilatu babesa? Besteak baino «gogorrago eta garbiago» (*pur et dur*) izanik? Gure kasuan kantitatea eta kalitatea buruz-buru jartzeari arriskutsu deritzat. Ezinaren justifikazioa, autodefentsa, kantibatiboari kalitatiboa kontrajartzeari. Jarrera hori nolabait azaltzeko, kasu bat aipatuko dut. Larresorok *Zeruko Argia*-n (1973, azaroak 11) hala idatzi zuen:

> *Z. Argia, hamar mila aletan saltzen bide da: Euskal Herriko jendaketaren arabera, hortaz, % 0,4 bakarrik, eta Baionako ZABAL, 300 aletan besterik ez (% 0,012).*
> *Ene ustez, halere, bai bata eta bai bestea, oso inportanteak dira (...) «La Gaceta del Norte» baino inportanteagoak biak!*

Gauza gaiaren eta mamiaren aldetik ikusirik, ez dut horretan inolako zalantzarik. Baina ez nuke juzgo mota horren haritik eraiki nahi kultur politika bat, ez kazetagintzan eta ez liburugintzan.

Sartrek ongi dioenez, irakurlerik gabe ez dago libururik. Liburuak, gainera, masiboa izan behar du gure herrian gauza guztien gainetik, duen eginkizun apartekoa bete ahal izateko, hots: alfabetatzea, euskara irakastea, euskara kultur hizkuntza bihurtzea... Irakurleak ugaltzeari eman behar zaio urgentziarik larriena.

Euskal liburuak aurrerakada handia egin duela ukatzen duen idazlerik ez dago, nahiz eta kalitate eskasa aitortu askok. Sekula baino arlo gehiago jorratzen ditu gaurko idazleak. Zientzi sail ugaritan ere badabil jenderik. Liburugintzaren estrukturak laster barru emango du horren berri. Konbentziturik gaude, datozen hamabost urteen buruan guztiz bestelako aurpegia erakutsiko duela euskal liburu produkzioaren gaien orekak. Euskal kultura hazi, hezi, eta autonomo baten bidetik abiatu da liburugintza.

---

en el caso de la Unión Soviética no sería un indicador operacional, la biblioteca individual, por el concepto de propiedad privada y por el desarrollo de la red de bibliotecas públicas, las mejor distribuídas del mundo.

En el caso de la población escritora vasca, es viable el intento. En efecto, entre las costumbres de acceso al libro apenas si aparecen la lectura en la biblioteca pública y el préstamo de libros. Los dos medios casi exclusivamente utilizados son, por este mismo orden, la compra en librerías y la suscripción. Esta costumbre apoya indudablemente la opinión que defiende la significación cultural de la biblioteca doméstica. Lo prueba a las claras lo dicho en el análisis hecho en la parte euskérica de esta obra.

Contenido de sus bibliotecas

¿Cuál es la imagen del escritor vasco que refleja su biblioteca?

La categoría de temas que encabeza la biblioteca del escritor vasco es la de ciencias sociales. Vienen a continuación literatura, religión, lengua, filosofía, ciencias exactas.

Las ciencias sociales mantienen su primer puesto respecto a las otras categorías de temas, si nos referimos a la lectura de estos mismos escritores. Hemos supuesto, por hipótesis, que la lectura puede expresar mejor que la biblioteca (que acumula los libros y las preferencias a lo largo de los años) las ten-


EUSKAL ALDIZKARIAK


Publicaciones vascas, escritas en euskera

Horra euskal aldizkari zenbait. Euskaraz argitaratuak. Liburu hau argitaratzen denerako **Zehatz** bi hilabetekaria ere kalean izango da.


Bi hizkuntzatan argitaratzen diren aldizkariak ere ugari dira Euskal Herrian; dela errebista **(Gure Herria, Fontes Linguae Vasconum, Gaiak...)**, dela albiste-emaile gisa **(Punto y Hora, Garaia, Berriak)**, eta erlijio saileko hainbat hilabetekari.

































IDAZLEA GIZARTEAN
(idazleen aburuak)

LITERATURA ETA GIZARTEA

Badira literaturaren soziologian klasikoak diren problema gordin batzu. Horietara ere hurreratu nahi izan dugu. Idazleen bidez eginen dugu. Horrela, bai problemak aztertzen ditugu eta bai idazleen aburua, pentsamoldea, joerak ezagutzen ditugu.

Hona zertaz ari izanen garen jarraiko orrialdetan: gizartearen eta idazlanaren arteko gorabeherak, obrak gizartean duen eragina eta berebat gizarteak obran duena; literaturaren lekua, zeregina eta ulertzapena gizartean, abangoardia eta literatura soziala; eta, azkenik, euskal idazlearen lekua eta bizimoldea, haren lanak eta eritziak.

GIZARTETIK LITERATURGINTZARA

Literaturgintza, gizarte fenomeno bat da. Egia arrunt eta ezagun hau gogoratzeak badu muntarik, literaturaren gaineko gizartearen eragina literaturgintzaren ekitaldi edo etapa guztietan agertuko bait da: ez bakarrik literatura saltzeko edo irakurtzeko, edo ezagutzera emateko orduan; aitzitik, baita literatura kreatzekoan ere. Lucien Goldmann-ek egin dituen ikerketak ezagututa, nekez uler daiteke literatura gizakien gain dagoen zerbait bailitzen, gugandik urruti dagoen mundu itxi eta estraino horretako zerbait bezala, inspirazioak ez beste deusek kondiziona ez dezakeen zerbait bezala. Idazlea, horrela, demiurgo bat litzateke, erdi-jainkoa, Jainkoak bezalatsu hutsetik kreatzen dakiena. Horra mitoa.

Ulerketa idealista honi egurra ematen dio Goldmann-ek. Lukács-en jarraitzaile honek «estrukturalismo genetikoa» delakoaren bidea asmatu du. Idazlan baten egituren, eta obra

hori determinatzen duen gizarte taldearen egituren erlazioa bilatzen du. Idazlan jakin bat, gizarte jakin batetan eta garai jakin batetan soilik sor daiteke horrela, hori da bilaketa honen atzetik dagoena. Literaturaren soziologia, kreazioaren soziologia da honengan.

Beste gisa batez bazen ere, problema hauxe da euskal idazleei planteatu nahi geniena: Baldintza ekonomiko eta sozialek zein eragin dute literaturan?

Nondik joko dute idazleek? Errealitatearen erreflexu huts bailitzen ulertuko ote dute literatura? Gainegitura bat ote literatura idazleentzat? Dudarik gabekoa da gizarte moduaren marka literaturan. Baina nolakoa ote da? Nola eragiten du? Zuzenki? Zeharka? Gizarte-modua literaturaren kondiziotzaile dea? determinatzaile?

Sakonki aztertu gabe ere, zera esan dezakegu: nolabait bederen, euskal idazleriaren irudi bat emango dutela erantzunek. Moderatu jokatzen dute gehinek, influentziaren handia baieztatu ondoren, erabatekotasuna ukatuz. Ikus dezagun bertagotik idazleen jarrera.

Seinalatzea merezi duen lehen puntua, hau da: ahobatez (bakarti bat edo beste kenduta) aipatzen dute denek baldintza ekonomiko-sozialen eragina. Idazleen lumatik etengabe ateratzen diren hitzak dira, influentzia hori adierazteko: «handia, dudarik gabe asko, izugarria, asko, eragipen aundia, oso handia, anitz, modu askotarikoa eta handia, erabateko eragipena, uka ezinekoa, erabatekoa ez bada ere handia behintzat...» Eta zerrenda luza liteke.

---

dencias actuales del escritor. En efecto, más de una variedad significativa presenta la lista de categorías de temas establecida en referencia a la lectura: Ciencias sociales, Lengua, Literatura, Religión, Filosofía, Ciencias exactas.

Si comparamos las listas así establecidas, observaremos que «la lengua» ha ganado unos puestos en la lectura adelantando así a la literatura y a la religión. No extraña este incremento de interés actual por la lengua. La unificación del euskera ha debido incidir en su subida. Pero también intervienen otros factores, políticos éstos, como puede ser el esfuerzo teórico y práctico de la integración de la lengua y cultura vascas en los movimientos de liberación.

Preferencias literarias: lecturas funcionales

En la lectura de los escritores, la literatura no aparece sino en el tercer lugar, lejos de las ciencias sociales y de la lengua. ¿Qué puede significar esta defección sino que la lectura de los escritores es funcional, utilitaria? Aunque para el escritor vasco sus mejores autores mundiales sean literatos (Dostoiewsky, Shakespeare, Baroja, Sartre), su lectura (aparte sus lecturas profesionales, el lector vasco lee 19 horas por semana) no es literaria, gratuita, una finalidad en sí. Es una lectura interesada, utilitaria (medio de formación, arma de combate). Para el escritor-lector vasco, el texto es ético más que erótico.

Baldintza ekonomiko eta sozial hauk, zabalerorik handienaz ulertu dituzte erantzun emaileek: gizarte inguru eta giro osoa besterik gabe, politika ere barne, historia ere kontutan ukanik. Baina, ezpairik gabe, ekonomia da denetan haintzakotzat hartuena.

LITERATURA, ISPILU DA

Guti batzuk (% 11k) azpimarratu nahi izan dute eragin honen «erabatekotasuna». Erantzunak azterturik, hala ere, ez da batere erraza «erabatekotasun» hori noraino heltzen den: literatura, hortaz, gizarte-baldintzen *erreflexu* ote da? Errainuaren, erreflexuaren, ispilatzearen teoriaren ulerkera mekanizista ote dute? Ikusera nahiko hedatua da hau, baina euskal idazleen artean ez da askorik aurkitzen. Ez nago seguru, ez bait da berdin gizarte baldintzen «erreflexuak» literaturan nabaritzea, agertzea, eta literatura bera haien gainegitura hutsa izatea. Gauza bat da baldintza horiek literatura kutsatzea, kondiziotzea, eta beste bat, oso diferentea, determinatzea.

- **Izugarria. Sisteman integratua bizi denak ezin du literatura engaiaturik egin.**

- **Erabateko eragipena, noski. Literatura gizonen kreakuntza da. Baldintza ekonomiko eta sozialak nabari dira literaturan, idazleak eurak baldintzapetuak diren neurrian.**

- **Erabatekoa, lehenak batez ere. Biek beren erreflexua agertzen dute nola edo hala literatutan.**

- **Literatura neurri handi batetan sozio-politiko-ekonomikoen errainu da eta hauek muga inportante batzuk ezartzen dizkiote.**

Entre los escritores vascos, sus preferencias son las siguientes: Txillardegi, Luis Michelena, José Azurmendi, Gabriel Aresti, Luis Villasante, Xabier Kintana, Bitoriano Gandiaga, Piarres Lafitte, José María Satrústegi, Jon Etxaide. Pero no hay uno que destaque de tal manera que se imponga soberanamente sobre todos los demás. Puede señalarse también que entre los 25 primeros, hay un 40 % con menos de cuarenta años. Cabe señalar asimismo que los 10 primeros son todos ellos partidarios de la unificación de la lengua propuesta por la Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia, en Aránzazu, en 1968, y que entre los 25 mejores escritores, aparte algunas raras excepciones, se da la misma unanimidad respecto al «euskera batua».

También es significativa (como índice ideológico y como *status symbol)* la jerarquía de preferencias entre los *newsmagazines* vascos actuales cuando se conocen las políticas e ideologías tendenciales de cada publicación. Las preferencias se concentran masivamente en las dos primeras: *Anaitasuna* y *Zeruko Argia.* Puede decirse, a grandes rasgos, que la preferencia va de izquierda (las primeras) a derecha (las últimas): *Anaitasuna - Zeruko Argia - Herria - Príncipe de Viana - Goiz Argi - Agur* (hoy desaparecida).

GIZARTEAREN ZAHARKAKO ERAGINA

Eritzi emaile hauen aldean askok (% 43k) markatzen dute bestelako insistentzia. Batzuk, kondizionamendua azpimarratu ondoren, determinismoa espreski ukatzen dute: beste batzuren insistentzia eragin horretan datza, hots, ez dela eragin zuzena, zeharkakoa baizik.

- Baldintzatu egiten dute, ez determinatu erabat. Eta dena saietsetik, idazlegoaren eta irakurleriaren hobe-kondizioak ezinduz.
- Ekonomia ez da kausa, baina bai kondizio.
- Handia, ez ordea guzizkoa.
- Handia baina ez guztia.
- Handia dudarik gabe, ez ordea eragile soila.
- Zuzen-zuzenik eta tartetik bertakorik, apenas. Zeharka, modu askotarikoa eta handia: sortzen duten giro sozial-politikoaren bidez; literatur produkzioa eta irakurleen gustoak kondizionatuz eta abar.
- Handia, baina, bide oso bihur eta gaurkoz funtsean guztiz ezezagun batzuen bitartez.

Nola agertzen da, bada, eragin hori literaturgintzan? Modua, tankera, bidea ezagutu nahi ditugu.

Batzuk nahiago dute globalki erantzun, literaturak gizartearekiko duen dependentzia gogoratuz.

Beste batzuk, literaturaren protagonistengan nabarmentzen dute zuzenki influentzia hori, zeinek idazlearengan, zeinek argitaletxeetan, zeinek irakurlearen baitan. Eraginik ageriena eta aipatuena, erantzun emaileentzat, idazlearen baitan dago. Zeruko mana ez baino egunoroko ogia jaten duela idazleak ere, gogoratzen digu izkiriatzaileak.

SEMBLANZA DE LOS ESCRITORES VASCOS

Podríamos comenzar por preguntar quién es el escritor vasco en 1977, a imitación de lo que hace J.F.J. a propósito del escritor francés en el dossier de **Le Nouvel Observateur** sobre «Profession-Ecrivain»: *«Héroe famélico y romántico que alienta sus dedos entre dos frases? ¿Académico cubierto de honores? ¿Revolucionario a la moda? ¿Poeta patriótico? ¿Vagabundo sospechoso que frecuenta los bajos barrios? ¿Funcionario meticuloso que contabiliza sus palabras?».*

UNA SEMBLANZA DEL ESCRITOR VASCO

De sobra conocida es la imagen que el público se hace del artista, y del escritor en concreto. El escritor es visto como un ser atípico, marginal, asocial, cuando no transgresor nato de las leyes sociales y morales, un original, medio-dios-medio-loco, zarandeado al capricho de una fuerza incontrolable que se llamaría inspiración. Puede observarse con los profesores R. Escarpit y R. Estivals que van desapareciendo los viejos mitos como el de que la miseria engendra inspiración y otros por el estilo, y que la imagen del escritor se está convirtiendo cada día en más social.

Lejos, muy lejos queda el escritor vasco de estas imágenes exotéricas del escritor de las sociedades capitalistas. Si el escritor vasco se encuentra marginado de la vida socio-económica, su marginación lo es a causa del cuadro social de la cultura vasca. El se quiere un hombre del pueblo, y de hecho lo es por su origen (el 68 % de los escritores actuales son de procedencia obrera y campesina).

GIZARTE-ERAGIPENAREN MARKA

Badira baldintza ekonomiko eta sozialen marka «a contrario» ikusten dutenak. Hau da, influentzia hori eskasegia litzateke hauentzat, Euskal Herriko kasuan, euskal kulturaren marjinalismoagatik. Baina baldintza horien indarra gonfirmatu besterik ez du egiten eritzi honek, hain zuzen ere aipaturiko marginalismoa ez bait da baldintza hauexen ondorio besterik.

- Ekonomi eta sozial giro on batek literatura lehen eta aurrerakoia egiten laguntzen dik eta errezagoa duk idazle eta idazgai hobeagoak giro hortan izatea. Ekonomi ahul, sozial giro txar batek alderantzizko lana egiten ditek nahiz eta posible izan idazle onik.
- Literatur produkzioa egon dadin, batetik ekonomi maila bat behar da eta bestetik, inguruko egoerak idaztera bultzatzen du.
- Ekonomiaren eta gizarte egoeran datza literaturaren bizibidea ere.
- Handia. Oso handia: Idazlearen formazio eta ogibide aldetik, adierazpide edo komunikabide aldetik, irakurlearen aldetik, e.a....
- Diruz ahala duenak (irakurgaien eskuratzeko) eta astia duenak irakurtzeko parte har dezake bakarrik literaturaren bizian.
- Editorialik ez badu, euskal idazleak ez luke idatziko. Denbora ere ekonomia baten ondorioa da... beraz, klaroa da ekonomiaren eragina eta baldintzatzea.
- Ekonomi on eta aberats batek erreztasuna lekarkio eta dakarkio, diru bidez ateak ireki eta zabalduz elertiari, berez eta ortarako zale eta langille diran idazleak irabazpidetuz.
- Idazlea gizartean bizi da eta gizarte horretan ekonomiak indar haundia du.
- Dudarik gabe asko. Zeren gaur egunotan dirurik eztuen irazleak bere lanen publikatzeko, diffikultateak ditu... Hunela soilik irazle aberatsak egiazko lanak publika ditzazkete... bertzeek bethi talde baten zerbitzuan publikatzen dituzte, eta hemen mediokreen influentziaren azpian izkiriatu behar dute.

El escritor vasco es en su mayoría cultivado. El 70 % escaso ha realizado alguna carrera. La preferencia de sus estudios ha ido por las letras (26 %) destacando entre ellas la Pedagogía, la Psicología, la Enseñanza, la Lingüística o la Historia. Vienen en segundo lugar (con el 22,5 %) las ciencias exactas y aplicadas. El escritor vasco difícilmente podrá ser atípico y asocial como personaje cuando el 45 % de ellos son de profesión liberal y el 31 % pertenecen a las profesiones religiosas.

El escritor vasco se quiere militante en su actividad cultural. Militante cultural. En la oposición clásica de las posturas del escritor, a saber, entre el testimonio y el compromiso, opta por el segundo. Más que testigo imparcial, lejano y objetivo, prefiere ser hombre de acción, eficaz, comprometido, actor, aún a expensas de su objetividad. Prefiere ser hombre de un sólo campo que de ninguno.

Este compromiso del escritor vasco comienza desde la elección de la lengua. Lo podemos ver en las respuestas recogidas en euskera. Es una opción que implica una idea de la personalidad del País Vasco y por la que decide, cada día más, que la cultura vasca deberá únicamente realizarse en euskera. Situándose, pues, en la problemática de su pueblo quiere trabajar cuerpo a cuerpo con su gente, lejos de las torres de marfil. Concibe su actividad literaria como uno de los momentos de la dialéctica «literatura-sociedad», esto es, como respuesta a

- Idazlea liberatzeko, idazle bakarrik izateko, nahita nahiezkoa. Horregatik, euskal idazleak idazten ordurik gehien eman ahal izateko, bere lana zerbait kobratzen hasi beharra du. Horregatik ekonomi-sozial baldintzak zer ikusi handia dute.
- Nahiko handia, idazleak ere bizi behar baitu...
- Literatura azkarki kondizionatzen dute: Txarrak direlarik, idazle jeinua norbaitengan itotzen dute, lehenik bizipidea nonbaitik atera behar delako; hobeak direlarik, aldiz, idazleak beste posibilitate batzuek (nola denbora, segurantzia apur bat...) aurki lezazke. Batzutan baldintza tinko eta gaiztoetan, berdin literatura ona, bipila, engaitua, gerta liteke.
- Ogibide zihurrik ez badago, oso zailla da elerti ederra egitea.
- Gure Herriaren ekonomia eta sozial baldintza marginatuak asko kentzen diote gure literaturaren eragipenari.
- Ba dute, bai noski, eragipenik literaturan. Gure artean, ordea, txit urria izan da eragipen hori; euskal literaturan esan nahi dut.
- Behar liteken baino gutiagoa.
- Gure literaturak ez du ekonomiz beintzak laguntza aundirik izan.
- Euskal literaturaren alde, ezer guti. Eta aurka asko. Baldintza oiek berdin dira emen euskal literatura naiz erdel literatura indartzeko, berez. Baina egiaz, ekonomiazko aukera obeak erderari geiago laguntzen dio. Ala ere, euskal literaturak ere ekonomi obean bideak zabalago izango ditu.

LITERATURA TIK GIZARTEGINTZARA

«Literaturak errealitatea alda al lezake?» Hauxe zen galdera. Eta galderaren intentzio punta zera zen: idazleek beren lanaz zer pentsatzen zuten jakitea, alegia. Euskal idazleek zein helbururekin eta usterekin idazten duten, hori geroago ikusiko dugu.

Oso zabala zen galdera, berariaz mugabakoa. Ez idazkintza mota bereizten zen, ez aldaketaren izaera, ez eta errealitatearen adiera.

---

los numerosos estímulos provenientes de la problemática de su pueblo. Por su actividad literaria participa en la sociedad, cambiándola. Modificando la sociedad por la creación de un clima diferente, desenmascarando la realidad escondida, destapando la verdad disimulada, valiéndose de la fuerza de la utopía para recrear la sociedad, problematizando la realidad, y a veces subvirtiendo los módulos.

El compromiso concreto del escritor es, por lo general, de índole cultural, y menos veces político y social en sentido estricto. Una de las dimensiones más trabajadas es la lingüística, ya que para el escritor vasco la lengua no es únicamente medio de expresión sino también objeto de atención especialísima. Se trata en efecto de lograr, y en ello está implicado directamente el escritor, que el euskera sea una lengua de cultura, una lengua moderna. Es, pues, consecuencia lógica la primacía del libro funcional en la nueva actividad cultural de los escritores modernos (unificación de la lengua, libros de enseñanza, textos, diccionarios, métodos, etc.).

El escritor vasco aboga hoy por la unicidad de la profesión. De hecho, está dividido a veces dramáticamente entre su profesión y la actividad literaria. No hay ningún escritor vasco que viva de la creación literaria. Contra esta situación lucha el escritor cuando demanda la profesionalización de su actividad. Y no hay atisbos de corporativismo: la motivación primera es cultural y no económica. En

Ohargarri da, aldakuntza hori zentzu iraultzailean edo/eta aurrerazalean ulertu izan dela lehenik, ia beti. Estetikoa baino etikoagoa, gizarte dimentsio bakarrean ulertua, esanen nuke.

Barbéris literatur aztertzaile frantsesarekin uste dugu, literaturaren eta gizartearen arteko harremana dialektikazkoa dela, eta zehaztu beharko litzatekeen moduan eragiten duela literaturak gizartean, eta, bestalde, honen adierazle dela hura.

Nola eragiten du literaturak gizartean, idazleen erizkeran? Zer nolako sakontasunez? Usteak uste, pentsatzen dut, Pierre Barbéris-ek[1] baino hotzago ikusten dutela euskal idazleek literaturaren aldaketa indarra: Une fois que l'oeuvre est écrite, elle agit. L'histoire n'est plus la même à partir du moment où quelque chose est écrite».

LITERATURA, ALDAKUNTZAREN LAGUNGARRI

Halako indarrik, agian, ez diote itsasten euskal idazleek literaturari. Asko bait dira idazleek aldakuntzaren indarra poxi bat makaltzeko edo jartzen dituzten hitzak, hala nola: «neurri tipi bat, nolabait, poliki, zeharka, ez gehiagi, bide oso luze eta problematikoz, luzaroan». Hala ere, biziki gutik defenditzen dute literaturaren ezina. Aldatu baino gehiago, aldatzen lagundu egiten du literaturak: hori da gehienen aburua, antza:

- Aldatzera lagundu, bai.
- Ez baina errealitatea aldatzen lagundu bai, ekintzaren haseran ideiak eta sentimenduak bait dira.
- Aldakuntzaren bidea urratzen lagun dezake.
- Noski, nolabait. Baña gure eremuan eta euskera bitarteko, inola ere ez. Aldaketa eskala eta laguntzaille izan diteke, ordea.

---

efecto, en los medios intelectuales vascos la unicidad de profesión, el profesionalismo, simbolizan el fin del marginalismo de la cultura por su inserción en la vida socio-cultural. ¿Solución-milagro? La solución sería, a no dudarlo, mucho más compleja.

El escritor vasco, escritor para un pueblo, es un hombre dislocado, fracturado, contradictorio como el que más. Quiere estar con el pueblo, habla a su pueblo y en realidad se dirige a una minoría social y políticamente comprometida, iniciada, abertzale, joven. Quiere dirigirse a todo el País Vasco sin fronteras, y en realidad puede únicamente abarcar un público concentrado geográficamente en su mayoría en Guipúzcoa y Vizcaya. Le duele su pueblo y pocos se enteran de su dolor. El escritor vasco vive dramáticamente su impotencia, su limitación. No ha podido él escogerse su público. Le ha sido impuesto. Impuesto por las fronteras lingüísticas estrechas, por el analfabetismo, por la falta de la enseñanza del euskera en la escuela...

ESCRIBIR EN EUSKERA, UNA OPCION NACIONAL

Cuando decimos que el hecho mismo de escribir en euskera es una opción de profunda significación estamos suponiendo ya una sociedad bilingüe (o trilingüe). En una sociedad unilingüe, la cuestión de la elección de la lengua no tiene sentido. Muchos escritores vascos, en cambio, se han planteado un día u otro la pregunta de la lengua a escoger. El problema es mucho más generalizado

- Ez berez, eta ez bakarrik.
- Bai, oso poliki. Hala ere, aldatzen lagun lezake.
- Errealitatea bera ez gehiegi; gehienbat laguntzaile apal bat izan leike lan horretan. Aitzitik errealitateaz (surrealitatea ere barne dela) dugun irudia, bai, asko.
- Luzaroan, oso luzaroan, bai, eta aldaketa bizkortu behinik behin.

LITERATURAREN ERAGINA

Asko dira literaturaren funtzio sozial hau azpimarratzen dutenak (% 52). Esan bezala, aldakuntzaren faktore bat da literatura; aldakuntza bera egin baino gehiago, kanbio hori lagundu edo azkartu egin ohi du. Nola, ordea?

Gizarte aldakuntzan, zuzen-zuzenean ez baino beste era honetara parte-hartzen du literaturak, hau da: giroaren aldakuntzaren bidez, izpirituak, gogoak, pentsaerak aldatzen lagunduz, aldakuntzaren lurra onduz, errealitatea bera ulertuz, agertuz eta esplikatuz, kontzientziatuz, errealitate izkutua errotik salatuz, ikuspegi berriak, ideia berriak, egitasmoak, ikuspegiak, utopiak sortuz. Honetan datzake literaturaren indarra. Indarra eta gizarte funtzioa.

- Idazle on batek jendearen asmoak eta gogoa alda ditzake. Baita ere giro bat eman dezayoke gizarteari. Errusiko iraulketa aurretik, asko aldatu zuten elaberriak kendea, ta bidea gertatu zioten iraulketari.
- Aldatzean inportantzia haundia har dezake: izpirituak, bihotzak hunkiz eta giroa berotuz baina literatura ez da aski bakarrik errealitatea aldatzeko.
- Literaturak giro bat adierazten eta sortzen du, eta gizarte funtzio bat betetzen du.
- Zuzen zuzenean ez. Berak bakarrik ere ez: mentalitate osatzen eragiten duden faktore berak askorekin batera, bai.
- Besteekin batera bai, ideiak diskutatzen eta zabaltzen eta mehetzen lagunduz.

---

de lo que habitualmente se piensa, aunque no siempre se da con la misma claridad. En una sociedad diglósica en rápido proceso de concienciación como la nuestra, esta elección de la lengua no siempre resulta evidente. No va sin problemas, sin dolorosos despojos, como nos testimonia uno de nuestros poetas actuales:

> *«... Paralelamente, sin choques, dejé el castellano, porque vi que una vez dominada la lengua me era posible expresar mis ideas en esa lengua y conseguir un estilo. El abandono del castellano fue para mí un gran sacrificio, uno de los mayores que haya hecho en mi vida. Entonces sufría mucho. Ahora ya no. En último término, tuve que optar. Es imposible vivir dividido en dos».*

Hay una opción, bien determinada a veces, en la elección de la lengua vasca como su lengua literaria. El escritor vasco es consciente de las renuncias y dificultades que le impone el euskera. Los testimonios recogidos en la parte vasca de este libro lo muestran a las claras.

Las limitaciones de la opción

Estos inconvenientes los podríamos enumerar de la manera siguiente valiéndonos del esquema de Francesc Vallvèrdú en su *Sociología y Lenguaje en la literatura catalana,* (EDICUSA, 1971) de la siguiente manera:

1) *una difusión más reducida,* a causa de la extensión de la lengua, de la

- Alda? Hots, denez bestela egin, nekez. Egitura —nolanahikoak— bestelakotu, ezin. Giro bat sortu, bai, eta giro horren bitartez iraultza ekarri, baita. Alda, hots, olerkariaren gisa, gehienok gauzak ikusten ez ditugun gisan ikustarazi, noski.

- Kultura ekintza guztiek herri baten pentsamoldearengan badute bere eragina eta herri kontzientzia hori ekintza sozio-politikotan konkretatzen dakien jenderik baldinbadago literaturak lurra prestatu egiten dio jende honi.

- Ez naiz hain segur literaturak errealitatea alda lezakeela. Bizkitartean, noiz nola, errealitatea formulatzeak, argitaratzeak, irakurleak lagunt lezazke errealitatea hobeki aztertzen, ulertzen eta, beharba, errealitateari buruz beren jokaera eta jokabideak aldatzen?

- Literaturak (beste arteak bezala) errealitatea agertuz. Errealitatea estaltzen duen beste «errealitatea» aldatzen laguntzen du.

- Kontzientzia zenbaiten adierazle denez parte izan dezake.

- ...Errealitatearen interpretazioa bai, eta ia beti.

- Literatura baño sakonagoko elementuetan datza errealitatearen gurpilla. Literaturak (beste artezko eta teknikazko adierazpenekin batera) errealitatearen garaiko pentsamoldea eman dezake. Aldian aldiko mitologia modukoa egiten du: esplikabide da eta eragina dakar. Ezer gutxi besterik.

- Guti edo aski ba, ideia berrien aldetik.

- Ikuspegi berri bat eman dezake eta ikuspegi hori aldaketaren abiapundua litzake. Literatura, hizkuntzaren utopia bat da eta utopia transformatzailea da.

- Zeinek erraiten duen: oilarrak uste du eguzkia jeikarazten duela? Halere uste dut errealitatea hein batean alda dezakela literaturak. Bere garrantzia badute informazioak eta ideologiazko borrokak.

- Errealitatea bera ez gehiegi; gehienbat laguntzaile apal bat izan leike lan horretan. Aitzitik errealitateaz (surrealitatea ere barne dela) dugun irudia bai, asko. Dena den, literaturak «lekuko» izaten behar du saiatu, zensura *guztien* kontra, edo eta nahi baduzu obe, konposizio guztien salatari argia.

---

demografía y del analfabetismo. La población vascófona es reducida, según los cálculos puede variar de 600.000 (Yrizar) a 750.000 (A. de Miguel). Además, habría que añadir a esto el analfabetismo interno, especialmente lo que se conoce como analfabetismo post-escolar.

2) *menos popularidad y ganancias más módicas.* Pueden considerarse consecuencias lógicas de la limitación anterior. El escritor vasco sufre las consecuencias de la marginación de la cultura, que se encuentra fuera de los circuitos socio-culturales y económicos. Si en toda cultura es verdad que la literatura no alimenta su hombre, en la cultura minoritaria lo es con creces.

3) *esfuerzo lingüístico.* La falta de escuela y la dificultad del aprendizaje sistemático de la lengua vasca entorpecen enormemente la posesión y el dominio de la misma.
Otra razón del esfuerzo lingüístico es la proveniente de la situación de la lengua misma, que no está todavía todo lo apta y preparada que debiera como instrumento de expresión cultural y científica.

4) *limitación política.* El hecho mismo de escribir en euskera ha sido frecuentemente asimilado a un acto político y considerado como tal por

- Aldarazten ahalegindu beharko lukeela uste dut. Literaturgilea ez da ikusle huts eta inparziala: errealitatea zer-nolako adierazi eta marraztu ezezik, zernolako behar luken izan aldarrikatu behar du.
- Literaturak errealitatea ALDATU EGIN BEHAR LUKE... eta egiazko literaturak hunela ere egiten du. Behar bada literatur baten egiazko balioa iuddikatzakotz kriterion hau erabili behar genduke. Errealitate aldatzen eta moldatzen duen literatura, literartur ona da.

LITERATURA SOZIALA

Bi literatur mota ardura zaizkigu hemen, idazleen joerak zehatzago marraztu ahal ditzagun: Literatura soziala eta abangoardia; lehenengoa, gizarte-gauzari begira landua eta, bigarrena, batikpat kreazioaren eta asmakuntzaren alderdia zaintzen duena. Ikus ditzagun bata bestearen ondoren.

Idazlerik gehinek, literatura soziala definitzeko erizpide bezala, idazlanetan erabiliriko gaia edo mamia hartzen dute. Gai soziala, askoz gutiago nazionala, nolabait esateko.

Minoria batentzat, hala ere, ez da aski gaia, literatura soziala definitu ahal izateko. Nola eta zeinentzako idazten den ere kontutan hartu behar da. Kondizioen artean, «herriarentzat idaztea» eskatzen dute, «masarentzat», «gehienentzat», «askorentzat», eta formaren aldetik «idazkintza erreza», «idazbide erraza», «herri xeheak irakur dezakeen literatura».

Holako literaturaren helburuen artean, lehen lekuan, «kontzientzi sortzea», «iraultza», «zapalkuntza salatzea» agertzen dira, baina hurbil doakio «justizia», «tolerantzia», «gizarte anaikorra», hots, helburu etikoak denak, moralistagoak bigarrenak. Kasu batzutan, izan ere, ez da gai bat tratatzea inportanteena, baizik eta norbaiten *alde* ateratzea: literatur-mota honek ia beti behartsuen edo beheko sozial

---

las jerarquías gobernantes (por el poder franquista). Como dirá Badia Margarit, se hace política de lo que sólo es biología del pueblo.

Los motivos de la elección

El escritor vasco, que sabe de obstáculos, ha escogido el euskera, lengua que le originará múltiples dificultades, algunas de ellas de envergadura, pero que le permitirá situarse de una manera específica frente a la realidad. Para muchos, algunos lo declaran explícitamente, otros lo dejan entrever, la motivación fundamental es política: su escritura en euskera es signo y realidad de su comunión popular. Algunos (el 37 % de los actuales escritores) escriben únicamente en euskera porque son vascos y para serlo: fórmula empleada para caracterizar su opción. Es verdad que la lengua lleva la parte del león en las reivindicaciones abertzales. La lengua está asimismo presente en todas las luchas políticas. Lo mismo en contra de los nacionalismos clásicos para delatar su desinterés por ella, que en contra de los internacionalismos de cuño leninista por su desprecio de las minorías y su defensa objetiva de los Estados en vigor. La lengua vasca es el factor diferencial por excelencia. Hombres como Sarrailh de Yarza (Krutwig) y Txillardegi (J. L. Alvarez) han teorizado en sus escritos este lugar nuclear de la lengua en la lucha actual de las minorías culturales. El que vive en pacífica posesión del castellano u otra lengua, difícilmente puede comprender la carga política, cultural y afectiva que invierte en su lengua el escritor vasco.

mailakoen alde dihardu». Edo hau: «sozial literatura, ene irudiko, hauxe da, gizarte maila behe edo apal baten alde ahalegintzen dena, haren egoera salatuz... Euskeraz idaztea bera ere, legez ukatuta dagoen euskaldun jendearen aldeko ekintza bat da».

Herrigintza-gizartegintza

Baina idazleen arabera, zeintzu dira sozial literaturaren jitea, izatea, hobekien azaltzen duten gaiak? Inkestako erantzunik gehienen joerak, bitan banatzen dira: gizartegintza, herrigintza. Klasikoa: azken 15 urteotan halako larridura sortu duen bipolarketa: klasea/nazioa.

